

Makilari

27. ZENBAKIA • 2016KO MARTXOA • GABIRIAKO ALDIZKARIA





AuR kiBi DeA

Di-Da



**Mikel Aizpuru Murua
(1963)**

Historiako gai bat?

1917 Errusia

Zein garai historikotan biziko zinateke gustuen Gabirian?

Orain

Bizitoki bat?

Gasteiz

Eguraldi emaile bat?

Andoni Aizpuru

Gabiriako soinu edo usain bat?

Hil kanpaiak

Asteburuetarako plan bat?

Mendia

Gabiriara etortzeko egun bat?

Errege eguna

Liburu bat?

El mundo del ayer, Stefan Zweig

Oroitzapen bat?

Eibarren ikasten pasatako urteak

Amets bat?

Vancouver-era joatea.

Abesti bat?

Xabier Leteren edozein

Di-Da



Idoia Maiz Baztarrika
(1988)

San Andres ala San Roke Txiki?
(barreak) galdera hau tranpa da e!!
Biekin gelditzen naiz, garaian garaikoa

Bisitatzeko toki bat?

Cabo Polonio, Uruguayan. Bertara heltzeko kamioi batzuetan edo itsas ondotik dunak zeharkatuz heltzen da. Kandela argitan bizi dira, herri magikoa erabat.

Umea zinela zer izan nahi zenuen?
Izeba Marijok bezala, pelukera!

Larunbatez parranda ala igande goizean mendira?

Gero eta gehiagotan igande goizetan mendi buelta, hala ere, oraindik nahikoa parranda egiteko gaude!

Astebururako plan bat?

Pirinioetara koadrilan egiten ditugun asteburu pasa horietako bat

Gabiriara etortzeko egun bat?

San Roke Txiki eguna

Liburu bat?

Ba, adibidez, orain irakurtzen ari naizena, Toti Martinez de Lezearen "Y todos callaron"

Oroitzapen bat?

Umetan larunbatero lehengusu denok Eguzkitzan elkartzen ginenean nola aritzen ginen ezkutaketan.

Ametz bat?

Ilusioa inoiz ez galtzea.

Film bat?

Izarren argia.

Afizio bat?

Gabiriako jaietako bizikleta karreran ateratzea.

Aratz Igartzabal Bidegain
Jon Sagarna Alustiza
Jon Ander Larrañaga Aizpuru

GABIRIA: 7 HIZKIKO HERRIA

Aizkorri inguruan dauden herri askoren artean, ingurugiroaren ederra mirestuz, agertzen da herri bat: “Gabiri, toki guztietatik agiri”. Txikitandik ikasi nuen esaera hura. Eguzkitza eta Errota-etxe baserrien artean egin baintuen uda luze batzuk. Ikasi nuen zerbait nekazaritzaz, baita abelgintzaz ere. Nire osaba Batiste, ferratzailea izaki, ze maisua bere lanean eta baita hizketaldi luzeak –nik gozokiro entzuten nituenak– behiak eta idiak ferratzen zituen bitartean.

Gaur, **G**abiria herri argi eta txukuna dugu, auzoak, baserriak etxetxo polit bihurturik, ondo zaindurik, aparteko herria eta gainera abegitsua, horrela ikusten eta sentitzen dut gaurko herrialdea. Gardena eta garbia.

Azpiko Auzo-aldean bizi ziren nire osaba-izebak, bai Batiste eta Bittori, eta bai Eugenio eta Joxepa. Igandero goizeko 10,30etako meza nagusira joaten ginen, tarteka baita pasiotarren komentura ere. Egia esan horrela lurralde polita iruditzen zitzaidan Ugarran bailara, baina ikusi baten gustagarri egiten den lilura horren gainetik, barruko jatortasuna igarri nion. Adeptasunezko adiskidetasuna eta alaitasunezko aukera bikaina.

Baztertuta geratu nahi ez duen herria iruditzen zait Gabiria, baititu herri kemena, bizi-nahia eta bizigunea. Azkenaldi honetan herritarrak batzen eta kanpokoak erakartzen dakien herriaren jokaera txalogarria deritzot. Iñaki, alkate berria, ilusioz eta gogoberoz dabil. Bejondeiola! Betiraunde guztian biztanle bikainez eta herri izaenez jarrai dezan.

Ikuspegi modernoa duen Gabiria sentitzen dut gaur egun. Mendizale-tasuna, kultura, Goierriko espiritua eta gaztetasuna uztartu nahi dituen herrikaskoa dirudi. Iparraldetik Zumarraga eta Ezkio-Itsaso ditu mugakide, hegoaldeetik Mutiloa berriz (ze oroitzapenak Lierniko Amabirjinaren egunean zoko azpi hartan lehenengo aldiz Mutiloa ikusi nuenean, agian 1960. urtea izango zen). Ekialdetik Ormaiztegi (bertako geltokitik hainbat alditan oinez abiatzen bainintzen Eguzkitza aldera). Mendebaldetik, berriz, Legazpi. Izan ere, itzal handiko herria baita Gabiria. Beti irakasgarri eta etorkizunean turismorako ispilu polita.

Urkuxu errekek zeharkatzen zituen nire osaba-izeben lurrak, bai Eguzkitzakoak eta baita Errota-Etxekoak ere, Eztanda ibaiadarra dena. Basoz eta

belardiz inguratuta. Bi baserriak zein baino zein gogokoago izan ditut.

Herriaren izena, aipamen historiko bezala, XIV. mendekoa omen da, “Santa Maria de Alkain” deiturarekin (1350). **R**h-faktorea ez genuen oraindik ezagutzen, baina beti herri euskalduna izan dugu izakeraz eta sentipenez. Zenbat jira-bira... Badirudi –nik umetan asko entzunda– XIX. mendean bainuetxe bat egon zela. Ez dakit nire osaba-izebek ez ote zuten eztei-bazkaria bertan ospatu. Garai bateko nekazaritza eta abeltzaintza nahiko ezkutatu da, nahiz eta batzuek jo-ta-ke hor jarraitu, batez ere orain, jubilatuta eta denbora luze hartuta.

Industria, maila txikikoa du, baina Goierri bailararekin bada zerbait eta norbait. 1960. urtean 700 biztanle omen zituen, 1900. urtean 992, 1847an 1142 biztanle, eta gaur egun 497. Gaurko baserriak baserri-etxe txukunak ditugu, nahiz eta baserria ogibide nagusizat daukatenak oso gutxi izan. Garai-aldi honetan eta epe motzeko etorkizunean ezaguna dugu Gabiria. Mendi artean agiri, errepide nagusietatik hurbil, eta laster, komunikabide-gune ere izateko aukerarekin. Ildo honetatik jarraituz gero, etorkizun oparoa izango duelakoan nago.



Aurrera edo etorkizunerantz begiratuz idatzi ditut lerro hauek. Ez dira bakarrik nire haurtzaroko eta gaztetxo aroko bizipen soilen kontaketa,aldi joanaren bihotz-minarekin idatziak, baizik baikortasunez eta itxaropenez adierazitako testua baita. Jaiotzez ez naiz gabiriarra, baina nire atxikidura-indarra handia da gabiriarrekin.

Udaldi garaietan etortzen nintzen Gabiriara. Ez zen falta zereginen bat baserrian. Txiki edo handi, denontzat izaten zen zeregina: ardi edo behi, edo senide txikiagoa zaindu, erre-kaduak egin... Nire lehengusuak sei-zazpi urterekin eskolara joaten ziren, ahal zenean. Kilometro batzuk oinez eginez. Maisu bakarra, umez inguratuta, irakurtzen eta "lau operazioak" erakusten ahaleginduko zen.

Mutilek aukera gehiago zeuzkaten: ofizio bat ikasi (arotz, hargin, erre-mentari...), lantegiren bat bilatu inguruan edo urruti (Legazpi, Zumarraga, Beasain, Ormaiztegi...); gudari karrera hartu; praile edo apaiz egin... Oso gutxi izaten ziren ikasketa gehiago egiteko aukera zutenak. Noski, 1950 eta 1960ko hamarraldiaz ari naiz.

Erlijioak eragin handia zeukan. Bizitzako une guztiak erlijio kutsuz beteak zeuden. Egunean hiru edo lau aldiz Parrokiko kanpaiek gogorarazten zuten goiz, eguerdi edo gaueko otoitza, edo meza edo arrosarioaren denbora. Etxeetan, jan orduko otoitza eta gaueko arrosarioa eguneroko gauzak ziren. (Gabirian bertan entzun nuen lehenengo aldiz Segura Irratia). Igan-de eta jai-egunetan meza nagusia, bai parrokian hala komentuan.

Gure azken jomuga Gabiriaren gizarte eraikuntza da: elkarrekin bizitzeko, etortzeko eta inbertitzeko lekua; bizi kalitatearekin eta elkartasunarekin: lehiakortasunarekin, hazkundearekin eta gizarte integrazioarekin. "Saia gaitetzen etorkizunaren guraso izaten, eta ez iraganaren seme-alaba" (Miguel Unamuno).

Guzti honekin zer nahi dut bideratu?:

- Ongizate pertsonala handitu.

- Gizabanako bakoitza arduratsu, konprometitu eta kooperatiboago bihurtu.

- Bizi kalitatea fisiko eta emozionala hobetu, aurreko belaunaldiak baino zoriontsuago izaterako bidean.

- Etorkizunean arrakasta handiagoa izatea lortu.

Behin Domicio Ulpiano jakintsuari (erromatar jurista ospetsua: 170-228) galdetu omen zioten zer den zuzena, hau da, zer den zentzuzko zuzenbidea. Berak honela erantzun zuen: "Tres ergo sunt iuris precepciones: honeste vivere, alterum non laedere, suum cuique tribuere" ("Zuzentasuna eraikitze-ko hiru arau daude: zuzenki bizi, ez egin besteari kalterik, eta bakoitzari berea eman"). Ez dira asmo txarrak, agian, nik uste, guretzat oso baliogarriak.

Gaurkoz nahiko izango da. Azken urteetan gauzak asko doaz aldatzen, baina hori beste baterako utziko dut, aldakuntza hauen zergatiak eta ondorioak, gainera, honek beste lan bat eskatzen du eta beste kontu bat da.

Joxe Agustin Arrieta Egiguren



AINHOA AIZPURU MURUA goi karguko langintzan

Ainhoa Aizpuru Murua (Gabiria, 1970) EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNEko ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUKO DIPUTATUA Gipuzkoako Foru Aldundian. Enpresa Zientzietan lizentziatua da, oinarri teknologikoko enpresetan jardun du lanean orain arte, eta besteak beste, berrikuntza, bideragarritasun planak eta inbertsioen mundua jorratu ditu. Horretaz gain, hamabi urte egin ditu Gabiriako udalean, horietatik lau urtetan alkate izan da. “Gabiri toki guztietatik agiri” dio esaerak: muino batean egonik, alde eta toki askotatik ikus baitaiteke; eta halaxe gabiriarrak ere, han eta hemen, gutxi izanagatik ere, gure ahotza hedatu zaleak gara. Ainhoa, berriz, lehenengo gabiriarra dugu horrelako arduran. Hori dela eta, berarengana jo dugu bere kargu berriaren xehetasunak eman diezazkigun.

Izen luze samarra, eta ponpoxoa agian, zure kargua izendatzeko erabiltzen dena. Azaldu iezaguzu zer den.

Bai, izen luzea da, ponpoxoa ez daikit, baina luzea bai. Sustapen ekonomikoarekin eta Landa garapenarekin Gipuzkoan aktibitate ekonomikoan dauden eragile guztiak bildu nahi izan dira. Aurretik bi departamentutan zeudenak – Sustapen ekonomikoko departamentua eta Landa garapeneko departamentua- legealdi honetan batu egin nahi izan dira, jarduera ekonomikoa borobilduz. Lehen sektorea hor sartu nahi zen, eta Sustapen ekonomikoari garrantzi handia eman nahi zitzaion, krisi garai hau gainditzeko bereziki. Horrela, lehen sektorea, industria eta zerbitzuak jarduera ekonomikoak direnez, guztiak integratu dira izen horren azpian. Bestalde, oso kontuan hartu nahi izan dugu Gipuzkoa lurralde txikia baina anitza dela jardueretan. Herri txikiak pisu handia dute, eta horri garrantzi handia eman nahi izan zaio. Lurralde oreka lortu nahi da, herri txikien eta handien arteko oreka, alegia, herri txikiak ere zerbitzu mailan, kalitate mailan handien paretsu izan daitezten. Horregatik guztiagatik integratu nahi izan dira jarduera ekonomiko guztiak departamentu berean. Nik uste horrela borobilduta geratzen dela gure departamentua.

Batean, Bidasoako izokina; bestean, Astigarragako sagardoa. Baina jan eta edan besterik ez al duzue ba egiten?

Ba, askotan, egia esan, ez ahorik busti eta ez mokadurik probatu. Ematen du egunkarietan eta telebistan agertzen diren irudiak ikusita, besterik ez dugula egiten, baina askotan, nahiz eta gu gustura egon bertako eragileekin kontutan eta beren beharrak, kexak eta iradokizunak entzuten, jateko edota edateko momentua iristen denean, alde egin beharra tokatzen zaigu beste konpromisoren bat edo

beste bileraren bat dugulako. Baina saiatu saiatzen gara, ahal denean, eserita edota zutik, dagoena probatu eta momentua gozatzen.

Konta iezaguzu nolako den zure egun bat.

Egun guztiak oso dira desberdinak. Lehen esan dugun bezala, Saila oso handia, oso zabala denez, batzuetan tokatzen zait zentro teknologiko bat bisitatzea eta mundu mailan diren punta-puntako teknologiak eta makinak ikustea, eta ondorenean, bada, sagardogileekin bilera bat edo nekazari-elkartekoekin beste bat, edo beste enpresa bat bisitatzea edota mendietako baso elkartekoekin bilatzea ... Egun guztiak ezberdinak: bisitak, bilerak ... horietaz gain, Diputatu Kontseiluko bilera egunak izendatuta dauzkagu Foru Aldundian bertan.

Ordu asko?

Ordu asko, bai. Egun batzuetan Foru Aldundian bertan egoten naiz, baina behin baino gehiagotan 6,7,8 bilera egunean, eta kanpora irtetea tokatzen denean -Jaurlaritzarekin ere koordinazio handia daukagu, baita udalekin ere- askotan bata bestearen atzetik. Denbora gutxiegi lasai egon eta gauzak pentsatzeko. Hori botatzen dut faltan.

Erraza al da bi semeren ama izan eta horrelako ardura duen lana uztartzea?

Erraza ez. Nik, egia esan, bai lanean bai etxean lantalde ona dudala uste dut, zorte handia dut. Etxean senarra; amandrea eta attitite ondoan; ahizpa eta familia ere etxetik gertu, ume zaintzaile bikaina ... azkenean denei tokatzen zaie esku bat botatzea nola edo hala. Niri ez zait zaila gertatzen, konfiantza hori badudalako. Oraindik bi semeak herrian bertan daude eskolan, eta horrek ere asko errazten du, seguru sentitzen zara badakizulako

inguruan daudela, eta edozeinekin seguru sentitzen zara, lagunen edo aldamenekoaren babesa izan dezaketelako. Ez baneuka segurtasun hori zailago litzateke, baina familia talde horrekin errazago da, beharrezkoa da, horrek asko laguntzen du. Egia esan, denei tokatzen zaie pixka bat egitea.

Zertaz hitz egiten duzue Foru Aldundiko korridoreetan?

Ba, nik uste dut hemen Ostaturun edota etxeetan askotan hitz egiten diren gauzez: Errealeko partiduez, asteburuan zer egin dugun, eguraldiaz, hurrengo oportretan nora joan behar dugun edo eguneko notiziari bati buruz ... gai normal-normalak izaten ditugu hizpide, oso jende arrunta antzeman ohi dut. Askok, gainera, zain edo egoten da hitza eman diezaiozun, eta pixka bat harritu ere egiten dira batzuk hitza eman diezulako, estimagarria baita hurbiltasuna.

Zer da zure kargu/lan berriko gustukoena?

Jende berri eta interesgarria ezagutzeko aukera. Lehen aipatu bezala, zentro teknologikoetan, Pedro Miguel Etxenike, adibidez, zurekin batera eseri eta bere kontuak, istorioak eta esperientziak azaltzea, edota, edozein tekninarik azaltzea bere lana eta zuri laguntzeko aukera hori izatea. Esperientzia berriak ezagutzeko egokiera aparta da.

Eta eramangaitzena?

Oraindik, zorionez, ez zaigu tokatu, baina pentsatzen dut iritsi daitekeela egunen batean egoera gogorren bat edo latzen bat, eta nahiz eta lagundu nahi izan, ezina sentitzea. Dugun ahalmena dugu, eta askotan, nahi izanda ere, ezin iritsi hori edo ezin lagundu hori eramangaitza izango da, eta agian, toka dakiguke momenturen batean.

Espero al zenuen horrelako izendapenik? Ala kostatzen da erabakia hartzea?

Espero ez, udala utzi eta lasaitzeko asmo erabatekoarekin nengoen eta deia jaso nuenean sorpresa handia izan zen, eta kasu honetan nola denbora asko ez dizuen uzten erabakia hartzeko, zirt edo zart erabaki beharra izan nuen. Etxean ere asko animatu ninduten, eta ezagun batek esan zidan, “zergatik ez?” eta baliente xamarra ere izaten naizenez, baietz esan nuen eta aurrera. Orain hori esaten diot nire buruari: “Baietz esan zenuen, eta orain aurrera”

Zertan lagundu dizute aurreko zure esperientziak: Alde batetik, Gabiriako udalaren kudeaketan 12 urte eman izanak – horietatik 4 urtez alkate izan zinen-; eta bestetik, oinarri teknologikoko enpresetan jaso duzun eskarmentuak?

Deia nik uste dut horregatik izan zela, udaleko esperientzia kontuan eduki zelako eta nire ibilbide profesionalean enpresekin, sare zientifiko-teknologiko

horrekin neukan harremanagatik. Esperientzia guztietatik ikasten da eta niri tokatu zaidan bizitzako esperientzia guzti horietatik asko ikasi dut: jendearekin tratatzen, egoera berriei aurre egiten.

Zenbat lagunek lan egiten duzue zure departamentuan?

Berrehun eta hogeit hamar pertsona, Sustapen Ekonomiko, Landa Garapen, Mendi eta Baso, Naturguneak, bost zuzendaritzatan banatuta: zerbitzuruak, teknikariak...Taldea handia! Ari naiz poliki-poliki jendea ezagutzen eta aurre egiten izenak jartzen.

Zerk harritu zaitu gehien Foru Aldundian?

Igual harritu, positiboki eh! Funtzionarioengan, oro har, daukagun imajina hori ez dela errealia ez? Teknikari oso onak daude, lan asko egiten da, eta jendea asko saiatzen da erantzun on bat ematen eta bere lana ondo egiten. Kanpotik askotan ikusten ez den bezalako jarrera dute. Funtzionario asko kontziente da aurrean bezero bat duela eta behar bezalako erantzuna eman

behar zaiola, eta gure mezua ere, hain zuzen, horixe izan da. Jendearenganako hurbiltasuna behar-beharrezkoa da; azkenean, herritarrei zerbitzu ona eman eta laguntzeko gaude.

Euskaraz lan egiteko aukerarik, modurik ba al da? Ahoz? Idatziz?

Erabat, lehenengo izendapeneko egunetik, dena euskaraz egiten dugu bai sozialistak eta bai abertzaleak euskaldunak gara, Diputatu Kontseiluan eta nire departamentuan bilera guztiak euskaraz egiten ditugu. Nire departamentuan bost zuzendari ditut, bat Beizamakoa, bestea Errezilgoa, bestea zegamarra, bestea Goizuetakoa eta pasaitarra. Zerbitzuruaren bat edo bada euskaraz ez dakiena, baina ulertzen dute eta euskaraz egiten dugu. Markel Olanok berak ere asko zaintzen du, eta niri tokatu zaizkidan hitzaldi eta prentsaurrekoak ere euskaraz egin ditut, zatiren bat igual erdaraz. Gehiengo handia gaude euskalduna eta euskaraz egiten duguna.





Zein erronka duzu esku ar- tean? Industria arloan? Neka- zaritza arloan?

Industria arloan gehienbat, hemen Gipuzkoan %92a enpresa txikia-ertaina da; orduan, lehiakortasuna hobetzeko behar den tamaina handitzea eta berrikuntza indartzea diragure erronkak, batez ere, kanpoko merkatuetara zabaltzeko edo produktu berriak garatu eta merkaturatzeko. Landa garapenean, berriz, sektorea profesionalizatu, oso garbi ikusi da esnearekin gertatu dena, Gipuzkoan KAIKU eta ekoizleak elkartuta zeuden eta Espainiaren aldean hobeto daude, orduan, profesionaltasun hori bultzatu bai esne, haragi eta azpi-sektore guztietan. Eta lehen sektorean, gazte gehiago sartzeko erronka ere bultzatzen hasiak gara.

Zure arlotik begiratuta, zein proiektu ikusten duzu bideragarri Gabiriarako?

Ni oso gabiriarra naizela esaten didate, herri txikien alde egiten dudalako, baina logikoa, bestalde, "Lurralde

Orekako" diputatua naizenez, errealitatea gertutik ezagutzen dut. Gabiria azpiegitura aldetik ondo dagoela esango nuke beste herri txiki batzuen aldean, behinik behin; baina zerbitzu aldetik, teknologia berriak, Internet, zuntz optikoa... hutsune nabarmenak dauzkagu, esaterako, bakarra naiz Foru Aldundian mugikorra Euskalte-lekin daukana, ze hemen, Gabirian, Movistarrek ez dauka estaldurarik. Badaukagu proiektu bat herri txikiertarako, seguru asko aurten aterako dena, telekomunikazio aldetik egoera hobetzen lagunduko duena, alegia, Interneteko abiadura handiagoa, estaldura zabalagoa. Horrekin nahi duguna da herri txikietan ahalbideratzea beste sektore edo aktibitate ekonomiko batzuk. Abaltzisketan, adibidez, badago enpresa bat, teknologiarekin oso lotua, eta hori nola izan da posible? Ba, Internet, telefono eta zuntz optiko indartsua daukatelako. Jarduera ekonomiko berriak herri txikietan ere jartzea interesgarria da, baina horretarako baldintza egokiak behar dira.

Gabirian jaio, hazi eta bizi, zenbat oroitzapen! Oroitzapenen bat:

Don Jose Mariarekin plazan egiten nituen paseoak. Eta New Yorken urtebete pasa ondoren, Euskal Herrira etorri eta Gabiriara iritsi nintzenekoa, "etxean nago" sentipen berezi hura.

Liburu bat: Oso bidaiaria zalea naiz eta "El sueño de Africa", Javier Reverterena

Mendi bat: Murgil, eta batez ere han ganean dagoen haritzondoa

Musikari edo musika-talde bat: Xabier Lete

Bertsolari bat: Xalbador

Pertsonaia bat: Ibarretxe Lehen-dakaria. Beti izan diot halako miresmen bat eman dituen pausoengatik eta egin dituen keinuengatik.

Esatera bat: "Zozoak beleari ipurbeltz"

Amets bat: Errespetu eta begirunezko euskal gizarte bat

Janari bat: Senarrak preparatutako edozein

Ura ala ...: Ondo prestatutako gin-tonic bat !

**Juli Bidegain Ormazabal
Marian Bidegain Ormazabal**

UMOREZ LEHENGO KONTUAK

Aurten negu arina joan dela eta, jendeak ibili du kontua ugari. Baina orain hirurogei urte, mila bederatzehun eta berrogeita hamaseia, aurtengoa baino arinagoa edo beroagoa izango zen. Urtarrilean, orduan ilbeltza esaten genion, udaberriko zizak zeinek non atera zituen badakit, eta fruta arbolak loretan. Pinuak ere puja berriak emanda dotore jarri ziren, gero otsail txikia etorri zen, “latza”! Hasi lehenengo egunean eta bukaera arte izotza eta elurra. Elurra ez zuen asko loditu, zentimetro gutxi; baina gauero izotza, eta elur asko egiteko, hotzegi.

Otsailaren lehenengo eguna ostirala zen, “primer viernes”, orduan esaten zen bezala, eta goizeko zortzietako mezatara etorri ginen jauna hartu eta hilerio bezala elizako betebeharrak betetzera. Elurra bezain zuri zegoen izotza eta lokatzetan ez zen hanka arrastorik egiten. Horrela hil osoa, horregatik esan zaio geroztik pinuak ihar-tu zituen otsaila.

Orduan baserri gehienetan etxean egiten zen ogia, baina denetan ez; eta panaderoak ordurako etortzen ziren. Urretxuko Estrella, esaterako, Eitzagako Eitza esaten genion horrek dena gauzak ere ekartzen zituen –bera zen gaur egun etortzen den Sorkunderen aitona– eta Ormaiztegiko Joxemiel, behintzat, bai. Orduko izotzare-

kin irrist edo patinatuta, Baztarrrikako aska esaten genion etxetik beherago kurba hartan zen aska; trumoiko euri kolpe batek mugitu eta kendu egin zuten. Gure edadekoentzat leku hori Baztarrrikako aska da. Baztarrrikako Iñaki Jauregik ikusi zuenean zer pasa zitzaion, kaminotik nola irten zen, aitzurra eta pala hartuta joan omen zen laguntzera eta Joxemielek ikusi zuenean hala esan omen zion: “etorri haiz, San Pedrok bere ondoan urrezko silla bat izango dik hiretzat zerua gozatze-ko.”

Joxemielenak lehen ere kontatuak baditut batzuk, gaur beste batzuk kontatu arren, ez ditut denak kontatuko. “Espiritualak egitea”, mezatara joateari esaten zion eta hori Gabirian edo Alegin egiten zuen, Ormaiztegiko aldean erdi denboran egiten zelako. Alegira zihoala kotxea aberiatu zaio Letag ondoan, eta han ari da kapota jasota konpondu nahian.

Hor dator Sosoako Juan Bautista bikiletan, eta hasten zaio galdezka:

- Ze pasatzen zak Joxemiel?
- Etxekiat ba, ez dik joan nahi eta!
- Honea arte ondo etorri al dek?
- Etorri dek behintzat! La madre que te hecho!

- Nora hoa ba Joxemiel?

Eta Joxemielek:

- Zea nijok, Jerusalem a masustak biltzea!

Letagen lanean genbiltzala, Lazkao Txikik irabazi zuen Eibarren bertso txapelketa bat. Lazkao Txiki eta Bixente Mujika Etxaburu oso lagunak ziren eta gure enkargatua zen Etxaburu. Orduan, Ormaiztegin omenalditxo bat egin zitzaion, eta afari bat Muruareneko goiko jangelan. Hura bukatu zuenean, Faustorenera etorri behar genuela pentsatu genuen trago bat jotzera. Gora gentozela, goizaldea zen eta panaderi parean ginenean ordurako Joxemiel panaderoa jaikita zebilen ogia egitera. Kotxea arrankatu ezinda orduan ere, eta gurekin zetorren bat joan zitzaion Joxemieli galdezka:

- Ze Joxemiel ogirik badeu?

Eta honen erantzuna:

- Hik ogie behar dek ala osti beinkatu bat nahi dek? Hobe huan lehen ere ogi gehiago jan eta ardo gutxiago edan bahu, eta joan hai hortik aurrea.

Ez zen arrazoi txarren emalea, baina goizeko ordu horietan lanerako jaiki dena eta parrandan dabilena ezin ondo konpondu.

Eusebio Igarzabal Alustiza

HEMENDIK HARA



Aupa Mikelo!

Agian arraroa egingo zaik eskutitz hau jasotzea, asteburuan elkarrekin egon garelako eta aspaldian egon ez bagina ere, ez delako ohikoa guk elkarri idazte hau... Baina banian gogoia hire bizimoduaz galdetzeko, tarteka kontatu izan didak nola sentitzen haizen, baina ideiak pixka bat ordenatzeko, agian, behar diat distantziaren patxada hau.

Ibani Madrila eta Maialen Gironara idatzi diet aurreko urteetan, baina ez dut uste hain urrutira joan beharrik dagoenik bizimoduz erabat aldatzeko, ezta?

Duela urte pare bat salto egin zenuen amaren magaletik, Kezman motxilan hartu, eta, nora eta, Zumarragara joateko. Zergatik Zumarraga? Behin baino gehiagotan egingo zizuten galdera hau, aurpegi arraroa jantzita

hamaika ezagunek. Hamaika (aurre) iritzi izango zuten ezagun hauek herri honi buruz: castellanoz betetako herria, PSOEn feudo, herri industrialia, itsusia, erdalduna... Ospitalea dagoen herria besterik ez batzuentzat, Golden diskotekaren herria beste batzuentzat. Gutxi batzuk gaztetxea eta bertako giroa gorai patuko dute, agian...

Hala ere askok ezingo dute ulertu nola joan zaren Gabiria bezalako herri euskaldun sano batetik horrelako herri batera bizitzera. "Gutxienez Urretxura joan balira"... Horrelakoak ere esan izan dizkirate zuei buruz!

Gauetik goizera aldatu ziren herri hauek duela hamarkada gutxi batzuk. Hauek ere izango ziren noizbait herri txiki, euskaldun, sano eta fededunak; industrializazioak eta Orbegozok beste ezer hoberik ez zuten belarri motx eta "mantxurrianoz" bete zituen arte. Orain azal beltzagoko belarri motxak datoz gure herrietara (adibidez, Zumarragara) eta mesfidati hartuko dituzte erdaldun sano eta fededunek etorkin berri hauek.

Gizakiok sarri beldurra omen diogu ezezagunari eta ezberdinari, eta badi-rudi Zumarraga eta Gabiria oso ezberdinak direla. Edo, agian, ez? Eta hain ezberdinak badira eta bagara, orain zuek al zarete etorkin fedegabeko, jaiotetxetik 10 kilometro eskasera?

Agian, asko eskatzea izango duk nire burutazio hauei erantzuteko eskatzea, baina gutxienez kontatu iezadak hire bizimodu berriaren berri Aritzondoko gerizpetik aparte.

Besarkada bana Xukaldetarrei, eta ondo bizi!

Jokin Murua Lopez

Oharra: Barkatu nire hika eta zukaren arteko nahasketak. Ez zekiat hika idazten eta ez zekiat hiri zuka hitz egiten...



Iepa Jokin.

Lasai motel, barkamena onartuta zegok, nik nola idatziko diaten kontuan hartuta gainera...

Ez diat gezurrik esango, arraroa egin zaidak eskutitza jasotzea bai, eta arraragoa, arkatza hartu eta nik bueltan idaztea (ordenagailura pasatzea ia...), baina gustu handiz egin diat.

Zergatik Zumarraga? Pufff... ez duk hasiera batetik buruan neukaan herria, ezta gutxiagorik ere. Baina Gabiriatik irteteko beharra sentitzen nian, nire bidea egitekoa... batekoz besteko, ohar-terako losu eta Kezmanekin nengoan Xukalden. Eta ni, beti oilo lurlean ibilia izanda, aldaketa handia izan zian.

Egia duk, Urretxu-Zumarragako gaztetxeko mugimendu eta parranda ezagutu (batez ere parranda) eta gustukoak nizkiala. Baina niri galdezka etortzen diren ezagun edo lagun horiek bezala, aurreiritziz beteta nengoan ni ere.

Alde batetik, topiko guzti horiek, zerbaitegatik zebilzkiagu ahotan, egi punttu bat dutelako; Serranok hain maittea duen hormigoiaaren kultura; kalean, komertzioetan... entzuten den euskara kopuru eta maila kaxkarra; Orbegozo gaineko laino kimiko hori...

Baina gero eta argiago zeukaat, gure buruan dagoen zerbait dela, egunero puskatzen zizkidatek eskemak. Gabirian bezain jende euskalduna, aber-etzalea eta fededuna ere bazegok, baita txoko politt ugari ere.

Hik esan bezala, etorkin ugariko herria duk Zumarraga, bai Espainiatik orain hamarkada batzuk trenean etorriak eta baita urrutiagotik ere, eta auskalo nola etorri direnak, azken aldi. Gure bizilagun espagnolaren inplikazio handirik ez diat sumatu, baina urrutiagotik datozen horiekin, askoz esperantzatsuagoa nauk. Gaztetxean euskaraz aritu nauk haiekin, ekintza kultural ezberdinetan eskuz esku jar-

dun diagu... interesa azaltzen diate, integratu nahia, eta hori aberasgarria duk Zumarrarentzat, eta, niretzat, noski.


Espazio berriak ezagutzen ari nauk Jokin; gaztetxea, irratia, baita zapa-tuko azoka ere. Gabiriak eskaintzen ez zidaken mundu zabal bat, Gabiriako mundu intimoa galdu gabe.

Urte eta erdi honetan ohartu nauk, nire inguruan bizi den jende hori dela Zumarraga niretzako, espazio eta harreman, berri eta ezberdin horiek direla Zumarraga hain erakargarri egiten dutenak. Zuek, Gabiri hain berezi izateko arrazoia zaretan bezala!

A, portzierto, bueltako bazkaria zor diguk Xukaldetarroi!!!


Muxu bat eta laster arte

Mikel Asurabarrena Bidegain



HERRIKO HARRIAK ESKALATUZ, GABIRIAN?

“Txori izateko jaio naiz, eta bekaizkeriaz begiratzan
diet lurrean pozik bizi direnei”
(García Pascual Miriam. Eman Izar bat)



Duela pare bat urte hasi ginen herriko hainbat gazte Gabiria inguruan genituen harriak eskalatzuz, laztanduz.

**- “Hi ze, bihar jungo gaittuk eskalatzea? Egoaldi ona omen zeok!
-“Bai motel, jungoaittuk!”**

Ataungo Jentil Baratza, Irimo azpiko harkaitza, Oiartzungo Pikoketa, Pasaiako Puntak, Hernaniko kantera, Uharte Arakilgo horma, Araotzeko haitzulo eta labarrak, Lazkaoko boulderra, Tolosako rokodromoa... Edozein larunbat edo igande goiz egokia da Newton zaharraren grabitatearen legeari aurka egiteko, harkaitzetako arrakalen misterioak ezagutzeko eta gizakiok ezer ere ez, eta, aldi berean, dena garela sentitzeko. Eskalatzeko. Horrela, beraz, arnesa, mosketoiak, soka, katu hankak eta txokolate pixka bat harturik gure bazterretako harriak ezagutzera irteten hasi ginen hainbat gazte.

Bidaia txo horietan beti komentatzen genion, ordea, elkarri: “hi, ta Gabiria eskalatzeko zeoze jarri beharkoiau ba ala?” Eta herri txikietako arratsalde aspertu eder horietan Gabiriako paretan eta harriei begira hasi ginen batbanean, beti hor egon diren harri eta horma zaharrak, zurrinak eta ahaztuak arakatzuz XVIII eta XIX. mendeko bidaiari erromantikoak bezala. Izan ere, nola begiratzen den, aukera berriak eskaini ditzakete hautsez beteriko horma zahar horiek.

Kasu honetan gure aurkikuntzak txikiak eta bitxiak izan dira. Izan ere, udaletxeko arkupeetan aurkitu genuen lehenik Gabiriako lehen eskaladarako horma, are-harri, kareharri eta porlan-masazko horma hain zuzen ere. Hainbat gaztek herrian eskalatzeko genuen gogoak asetze aldera, bertan hasi ginen geure “bia” propioak irekiz eta geure “bloke” pertsonalatuak entseatuz. Udaletxeko arkupeetatik

Gabiriako beste txoko misterioitsu batera iragan ginen eskalatzeko beste espazio “natural” baten bila, eta hara non, eliza atzeko “paseoan” aurkitu genuen leku txiki bat, lehengo hilerriaren alboan. Koltxoneta zahar bat bizkarrean hartuta joan izan gara bertara, elizako kaliz(a)-harrien misterioak eskalatzera. Leku txikia dugu hau, xarma berezikoa, ordea, eta edozein beso zuztar lehertzeko modukoa da. Hainbat asanbladaren ondoren, 6a-ko nibela zuela adostu genuen. Azkenik, Eskolako horman amaitu genuen eskalatzeko, herriko ostatutik gertuago geundela eta. Bertan, ordea, hainbat zulo txiki egin behar izan genituen, eskola zaharraren pitzadurak aprobetxatuz. Bidaia honetan zehar beti izan ditugu alboan bidaiari eta errores gazteak, ezezaguna den horren erakargarritasunak bultzaturik.

Baina bidaia amaitu zenean pausu bat harago joatea erabaki genuen, eta rokodromo edo boulder bat eraikitzeko asmoak sortu zitzaizkigun geure buruetako arrakala eta pitzaduretan. Eta gure espedizioa momentu honetan etapa berri batean sarturik dabil. Eskalatzeko gogoak bultzaturik, balizko proiektu bat diseinatzen eta burutzen ari gara momentu honetan, herriaren aurrean aurkezteko ea Gabiria eskaladarako rokodromo edo boulder bat eraikitzea bideragarria ote den edo mendizale erromantikoen buruhaustea diren eztabaidatzeko. Rokodromo edo Boulder hau leku itxi baten barruan diseinatzen gabiltza orain. Lekuaren neurriak, rokodromoaren barruko forma, honek izan dezakeen aurrekontua, eta, beste-

tik, herriari egin diezaiokeen ekarpen soziokulturala aztertzen dihardugu; ondoren, udalarekin eta herritarrekin ahalik eta aukeraketa egokiena egiteko.

Besterik gabe, hauxe Gabirian eskalatzeko ibiltzen garen gazte batzuk, besteak beste, herrian gorpuztu nahi dugun ilusioetako bat. Gabiriako hainbat horma eta harri zahar ahaztuetara bidaiatzeko, behintzat, balio izan digu. Gehiago ere ba omen dira...

harriek badakite... eta ixildu egiten dira.

harriek badakite basoan gerta ohi dana

**eta lur gaiñean, belar-izpietan,
eta lurpean, lurraren erraietan,
eta arnasten duten aidean
eta karesatzen dituen aizean...**

harriek badakite

—dena begi,

dena belarri—

zer nahi denaren berri...

harriek badakite... eta ixildu egiten dira.

(Juan Inazio Goikoetxea, Gaztelu, 1970)

Jon Ander Larrañaga Aizpuru **“Txojan”**

Beñat Maiz Agirre **“Benato”**

Julen Sagarna Alustiza **“Ezpala”**

Jon Sagarna Alustiza **“Johnny”**

Joseba Iztueta Dorronsoro **“Katain”**

Asier Bidegain Baztarrika **“Patxi”**

Iban Maiz Alustiza **“Banagas”**

GABIRIAKO UDAL LIBURUTEGIA

Eskolako eskuin paretari begira, Ostatuaren ezkerretara, Kultur etxe-ko atetik pasa, eskailerak igo eta ezkerretara kokaturik dago gure liburutegitxo xarmanta. Bertako apaletan oraindik liburuak sartzen diren arren, ongi hornitua dago heldu zein adin guztietako haurrak irakurtzera etortzeko edo zerbait maileguan hartu eta ospa egiteko.

Gaur egun, azarotik hasita, bertako arduraduna ni naiz, Arantzazu Bazta-

rrika (Errotakoa), eta han egongo naiz nahi duenak bisita egiteko ostiral arratsaldeetan lauetatik seietara. Baina liburutegiko kontuekin segi aurretik, ezin dut aipatu gabe utzi nire aurreko arduraduna. Pazientzia ikaragarriekin hau guztia funtzionatzen jarri eta bertan aurki daitezkeen liburu guztiak kalifikatu, ordenatu eta sisteman sartzera zor dioguna, Elixabete Murua. Berak hau egin izan ez balu, nork jakin zein itxura izango zuten apal hauek...

Lehengora itzuliz, esan bezala ni ostiral arratsaldeetan egoten naiz bertan, nahi duenari liburuak eman eta jasotzen, baita pixka bat ordenaturik mantentzen saiatzen ere leku hau, liburu berriak kalifikatzeko ahaleginak egiten eta tartean tokatzen den beste edozertan. Orain arte, bertan jasotzen ditudan bisitari gehienak 12 urtetik beherako umeak eta gaztetxoak izan dira, batzuk gurasoekin eta beste batzuk beraien kabuz denbora pasa ni



The screenshot shows the website 'www.katalogoak.euskadi.net'. The header includes the Euskadi Government logo and the text 'Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea' and 'Red de Lectura Pública de Euskadi'. A search bar is present with the text 'Bilatu:'. Below the search bar, there are several categories: 'Eskurapen berriak', 'Hemeroteka', 'Bibliografía Nazonaia', and 'Ondare bibliografikoa'. There are also social media links for Facebook and Twitter, and a QR code in the bottom right corner.

entretentizera etortzen dira eta liburuak begiratu, gustukoak aurkitu eta mailegatzera. Arrazoi hori dela eta, apaletan aurkitu daitezkeen liburu gehienak 12 urtetik beherakoentzat dira. Hala ere, ez pentsa helduentzako moduko ezer ez dagoenik, liburutegian nahi duenak ziur irakurtzeko zerbait gustukoa aurkituko duela.

Baina nire iritziz, liburutegiak duen eskaintzarik hoberena bertan ikusi ezin dena da.

Liburutegi hau Euskal Herriko beste liburutegi askorekin batera programa batean sarturik dago, non aukera ematen den liburutegi batetik bestera liburuak mailegatzeko, guk liburuak eska diezazkiekegu eta guri eska diezazkigukete. Horrek esan nahi du Gabirian ez egon arren, nahi dugun liburuak beste leku batetik ekar daitekeela; epe nahiko zabalerako, gainera. Horrek gure irakurketa aukeren mugak lau pareta haueetatik askoz haratago eramaten ditu.

Liburuak maileguan hartu ahal izateko egin beharreko lehen pausoa, eta, ia azkena, txartela egitea da. Horretarako, zenbait datu eman beharko

dizkidazue eta nik poz-pozik egingo dizuet karnet polit bat.

Txartelaren diseinua Elixabetek egin da, eta bertan hutsik dagoen zati grisean, armariaren ondoan, bakoitzaren datuak jartzen dira, bertan agertuko delarik zuen irakurle zenbakia ere. Baina ez duzue hau soilik jasoko. Honekin batera papertxo batean idatzirik beste pasahitz bat ere jasoko duzue.

Zuen txartela eta pasahitza izanik, liburuak mailegatzeko hasteko prest egongo zarete. Berez, liburuak mailegatzeko irakurle zenbakia edukitzearekin soilik nahikoa da. Baina orduan pasahitza zertarako?

Pasahitz horren bidez Euskadiko irakurketa publikoko sarean sartu ahal izango zarete, liburutegiko txartelaren zenbakia eta gako hori jarriker bertan saltsatu eta nahi dituzuen liburuak eskatzeko aukera edukiko duzue bai gure udal liburutegitik eta baita beste edozein liburutegitatik ere.

Hala ere, edozein liburu lortzeko ez da hori duzuen bide bakarra. Beste bidea niri esatea delako. Apaletan bal-

din badugu, hartu maileguan eta listo, eta ez badugu, saiaturiko naiz ekartzen. Gainera, honek beste abantaila bat ematen du. Liburuak liburutegiaren izenean eskatzen baldin badira beste liburutegi batera hiru hilabeterako epean etortzen dira, baina irakurlearen izenean egonez gero, askoz epe laburragoa izango duzue beraiekin gozatzeko.

Amaitzeko, badakit liburutegia zabalik dagoen ordutegia nahiko murrizta dela, eta jende askok ezin duela bertara gerturatu ostiral arratsalde batean 16:00-18:00 ordu bitartean egin nahiko litzuzkeen gestioak aurrez aurre. Okupaturik dauden horientzako edozer gauza galdetu edo esateko eskura uzten dizuet liburutegiko posta elektronikoa: gabiria.liburutegia@gmail.com

Bertara lotsa gabe idatzi edo egin bisita bat liburutegira bertara, nik pozik hartuko zaituztet.

Beraz, animatu gure liburutegiko aukera guztiak aprobetxatu eta irakurtzera!!

Arantzasu Baztarrika Izagirre

Han goitik mundua desberdin ikusten da

Leonardo Da Vinciren diseinuak, Wright anaiak eta euren garbigailuaren motorearekin egindako hegazkina, Hindenburg zepelina, Amelia Earhart... Salto egitea nahikoa ez, eta gizakiak beti nahi izan ditu txoriak imitatu; aire boladak hartu eta igo; eta mundua nola okertzen den ikusi, egunero eskaintzen digun amaiera apoteosiko horretan.

Eta egia da, han goitik mundua desberdina ikusten dela. Txikia. Handia.

Dron bat pilotatzeko ez da aparteko jakintza edo dohainik behar. Playes-teixonean majo ordu sartu dituztenek izango dute dohainik, izatekotan ere. Jakintzak, kursillo motz batean jasotzen dira. Nire aldetik, gomendagarria, jasotzen den kultura orokor guztiagatik. Ikustekoa da zenbat gauza dakizkizula ziurtatu behar duzun, tuperbare hegalaria bat modu legalean gidatzeko. Mundua geoide bat bihurtuko da, aireportuek zentzua hartuko dute, lainoek izenak. Eguna, eguzkia zerumuga baino 6 gradu beherago dagoenean hasiko da, eta buelta osoa eman ondoren, zerumugatik sei gradu erortzean amaitu. Alfa, Bravo, Txarli; zure autoaren matrikula zipa... ertzainen jergan esan ahalko duzu...

Gauza horiek ikasterako, tuperbarea gidatzeari lotutako arlo praktikoa

dominatuta izango duzu, lege guztiak hautsiz (edo gure euskarte honetan hainbeste gustatzen zaigun ez-ikusiarrena eginez) herri inguruetako ardiak jada estresatuta izango dituzulako. Izan ere, horretarako ere balio lezake dronak (ardiak biltzeko), eta ez naiz teoriarik ari. Artzain zakur hegalaria patentatzea denbora kontua da.

Metereologia, kartografia, legedia, aerodinamismoa/injenieria, fisika, geografia... baina finean, mendira joatea bezalakoa da: eguraldiari begiratzen diozu; bidea aztertzen duzu; legeak ezagutzen dituzu; ez zara takoidun zapatekin joango... Gogo eta kontu pixka bat behar dira: Gogo, papeleo guztian eta azterketetan sartzeko. Kontu handia, aberia latza sortu dezakezulako, eta kontzientzia dron hori baino hauskorragoa delako. Horren adibide gisa, esan, ezagutzen dudala pinu artean galduta hilabete eman zuen horietako artzain zakur hegalaria bat. Zorionez, etxera itzuli zen, trukean urdaiazpiko bat jaso zuen basoko langile bihozbera bati esker. Arroz artean lehortu, eta piztu egin zen. Txasi konponketa batzuen ostean (plastikoa lijatu eta atornillatu), berriz ere putreak izutzen dabil.

Dron simple batek, merkatuko ezagunenak, 2 kilo inguruko pisua du eta Spainian eta erreinuaren menpeko

aberrietan, legez, 120 metrora igo dezakezu, nahiz eta botoi bat saktuta, muga hori desagertu egiten den. Hala ere, esperientziaz, nahikoa txikia ikusten da jada, 120 metrora.

Piztu, eta hegan egitera. Ez dut sentsazioa parapente batean dabilenarekin lotuko. Haizea aurpegian sentitzea eta altueraren bertigoa zirrargarriak izan behar dira. Are gehiago bideo honetako pertsonen hegaldia (<https://youtu.be/BaNZzU-g50pg>). Edota hauena (<https://vimeo.com/38063361>). Ikusteak merezi du. Soinu bandengatik soilik bada ere.

Hori ikusita, ez dut esango dron bat gidatzeak hori sentiaraziko dizunik. Ezta gutxiago ere. Baina dron bat igotzean, oin puntak lurretik apur bat altxatzen zaizkizula sentitzen duzu, eta egia da, han goitik, mundua nola okertzen den ikusi dezakezula, eguzkia zerumugaren azpitik sei graduz ezkutatzen den bitartean.

Hori gertatzen denean, gaua iristen da, eta gauetz, besteak beste, ezin dira dronak aireratu. Motoreak itzali, eta ohera.


Amets politak izan.

Alex Areizaga Albisua



GURE BASOAK

Baso naturalak (natiboak, bertako hariztiak, pagadiak) edo zuhaitz exotikoak egur-ustiapen komertzialak (pinudiak, harizti amerikarrak, alertzediak, eukaliptadiak,...). Zer nahi dugu gure inguruan?



XX. mendearen bigarren hamarkadatik hona zuhaitz exotikoak masiboki erabiltzen dituen egur-ustiapen komertziala nagusitu da gure mendietan. Onartu beharrekoa da hasiera batean itxaropen handiak sortu eta jabeentzat errentagarria suertatu bazen ere, azken hamarkadetan 'urre berdearen' promesa apaltzen joan dela eta urteetan aurrekontu publikoen oxigenoaz baliatu dela. Paper-lantegiek iraun duten bitartean eta kanpoko egurra sartu ez den bitartean izan du egurrak bideragarritasun ekonomikoa.

Gure lurraldean baso-politika berbera aplikatu da lur pribatu zein publikoetan. Gipuzkoan, hain zuzen, lur publikoetan ematen dira ustiapen intentsiboetako asko. Gipuzkoan Nafarroa edo Araban baino herri-lur gutxiago dago, eta, gainera, okerrago eta modu intentsiboagoan erabiltzen dira; eta horren ondorioak guztiok jasaten ditugu. Non daude kalitatezko paisaiak eta paseatzeko baso onenak? Non ondo biltzeko lekurik aipose-nak? Non basa-bizitza gehien? Jendea asteburuetan nora joan ohi den galde-tu besterik ez da egin behar.

Gipuzkoako egur-ekoizpe-naren ekonomia.

Datu ofizialen arabera, Gipuzkoan XXI. mendeko lehen hamarkada erdian ekoiztu zen egur bolumena 114.000 eta 469.000 m³/urte artean mugitu zen, eta %95-99 espezie exotikoen salmentei zegokien: intsignis pinua, haritz amerikarra, alertzea, eukaliptoak...

Balio ekonomikoari dagokionez, 2000tik 2007rako errentak, 12 eta 18 milioi €/urte artean baloratzen dira;

2000. urtean 80 € inguruan saltzen zen m³ bakoitza, egur berbera 2010. ean 15 € besterik ez zen ordaintzen, eta berriro goraka jasango duen itxaropenik ez da aurreikusi.

Hainbat arrazoi eman daitezke, baina gure hausnarketarako garbi geratu behar den datu bat azpimarratuko dugu: gure mendiek dituzten baldintza fisiko eta sozialekin (mekanizatu ezineko aldapetan kokatuak, azalera erlatibo oso txikia, erabat zatikatutako lur-jabegoa...) balio erantsi eskasak dituzten ekoizpen klaseen errentagarritasuna beti izango da zalantzakoa, edota hamarretik bederatzitan, behintzat, negatiboa.

Kontuan hartu behar da kalitate berdintsuko material ugari ekoizten duten beste eskualdeen eta nazioen lehiakortasunari eustea zaila dela. Beste arlo batzuetan bezala, honetan ere globalizazioak errotik aldatu ditu baldintzak, eta eskema zaharrek ez dute baldintza berrietarako balio.

Hori gutxi balitz bezala, monolaborantzaren ondorioak gero eta nabariagoak dira, lehen pinu-beldarra eta hainbat izurrite baziren, orain Fusarium izeneko onddoak eragindako gaitzak pinudi osoak kentzera behartu gaitu, eta horretan ere diru publikoak xahutzen dihardugu.




Kontuan hartzekoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Baso Zerbitzuaren aurrekontu publikoa, egur ustiaketa pribatu (Gipuzkoako basoen %80) eta publikoa (Gipuzkoako basoen %20) batuz ateratzen den diru-errenta baino handiagoa dela.

Ordainetan, politika honek lurralde osoa alderik alde estaltzen duen mendi pista sare erraldoia utzi digu, mendi hegal osoak higaduraren menpe, ibai eta urtegi arretuak, bioaniztasunaren galera, paisaiaren bestelakotzea, mendien industrializazioa eta artifizializazioa...

Arlo pribatuan egurra ekoiztu nahi duenak, egur bikainak (haritza, pagoa, gereziendoa, basagurbea, lizarra...) landa ditzake baso naturalen berreskuratzeari bultzadaxo bat emanez,

edota orain arte ezagutu dugun baso exotikoen ustiaketan jarrai dezake... norberaren hausnarketaren arabera.

Jon Ander Jaka Goikoetxea



Bibliografía: "herri basoetako mintegia" Gipuzkoako Diputazioa 2012

URAK EMATEN ZITUEN PROBLEMAK


Uraren inguruan egin dugu jira ederra gure artean, garai batean edateko ura iturri garbi eta freskotik ekartzen zen etxerako; lurrezko pitxar edo ontzian. Hala ere, horretarako ez zen asko behar izaten, eta, gaitz erdi, garbitasunetarako behar izaten zenak ematen zituen lanak. Etxe barrura ura sartzen zen etxerik ez zen ia, orduko tuboa berunezkoa, ez dakit asko balio zuen edo; gero burdinazkoa, galbanizatua, hasi zen, bost metrokoa, roskaz elkarri lotzen zirenak; gero plastikozkoak, gogorrak, kolaz juntak hartzen zitzaizkienak; gero PVC plastikozko roiloan, kobrezkoak...

Dutxa edo gorputzaren garbiketan ez zen gaur adina gastatzen, komunean ere ez. Ura behar zuen komunik ez zen orduan, ezin hasiko naiz komuna nola ziren esaten.

Etxea baino gorago baldin bazegoen iturria, metroko hormigoizko tubotan etxe ondora ekarri, askotan atariko ate ondora, han bi aska izaten ziren (bat arropa garbitzeko, eta bestea ganaduak edateko), txorroa aska batera zuela, eta beste askara ura joatea nahizenez, gainean gaztaina egur bat kanala aterata, hura jarri txorroaren parean eta zihoala ura beste askara.

Iturria edo ura etxea baino beherago bazegoen, orduan izaten ziren kontuak garbitasunetarako, eta ganaduentzat ere bai batzuetan, nahiz gehienetan ganaduak beraiek eraman egunean behin ura zegoen lekura. Negua bazen, ur edan bat egin eta buelta ilea zutituta. Ur garraio horretarako bazen inbentutu bat: bi errara. Bizkarrean eramateko makilarekin, bat aurrean, eta bestea atzean. Errara da baldearen forma alderantziz duena, behean zabala eta goian estua; barrua zinkezkoa, gaintik egurra ohol txikiak eta haiei eusteko latoizko anila batzuk.

Eusebio Igarzabal Alustiza



Errara makila



Errarea

MANDOAK IGO EZIN IZAN ZUENA, LASTERKETAN

Herriko zenbaitzuen artean kontu ezaguna da Leharregiko aldapan (Agerreko askatik herri gunera doan herri-bidean) harri garraioan zebilen mandoa leher eginda geratu zenekoa, baina toponimo hau (Gabiriako hizkeran, Leharrei) nahiko ezezaguna izan da herriko gazteen artean, azken hilabete hauetan berriro ere ahoz aho zabaldu den arte. Honen arrazoia, herritar gazte talde bat Leharrei Mendi Lasterketa antolatzen hasi garela da.



Herrian mendi lasterketa bat antolatzearen ideia duela urtebete inguru sortu zen, izatez legazpiarra den Jose Luis Ugarterekin garai bateko herri-bideak berreskuratzen hastearrekin bateratsu. Ikusten zen garai batean gure aitona-amona edota gurasoek hara eta hona oinez mugitzeko erabili ohi zituzten bideak galduta edo ia galduta zeudela denboraren eraginez. Hori dela eta, hainbat bide zati auzolanean garbitu ziren; adibidez, Atagoititik Errotaberri ingurura doana eta Gabiriatik Aztiriarako bide nagusia zena, Eztanda baserriaren ondotik.

Berreskuratutako bide hauek garbi mantendu eta herritarren artean ezagutarazteko ibilbide bat markatzea bururatu zitzaigun, eta ibilbidea markatzearekin batera etorri zen lasterketarena; urtero herri-bide hauek garbitzeko aitzakia bat.

Gauzak honela, guztira 24 km dituen ibilbidea prestatu dugu I. Leharrei Mendi Lasterketarako, Gabiria herri gunean hasi eta bukatzen dena, Murgil, Trapalata, Atagoiti, Aizaleku, Aztiri eta Otañutik igaroz, besteak beste. Lasterketa honen berezitasun nagusia aldapa gora amaituko dela da, Leharregiko aldapatik iritsiko baitira lasterkariak helmugara. Hortik dator kio lasterketari bere izena.

Lasterketa apirilaren 9an izango da goizeko 9:30etik aurrera, eta lehen urtea izanik, 150 parte hartzailetan ipini dugu gehieneko lasterkari kopurua. Lasterketarik ezin da egin, ordea, bo-

luntarioen laguntzarik gabe. Gure aurreikuspenen arabera 50 lagun inguru beharko ditugu egunean bertan ibilbide osoan zehar egongo diren anoa postu, bidegurutze eta herri gunean bertan, irteera-helmuga puntuan laguntzeko.

Bestalde, eskerrak eman nahi genizkieke dagoeneko lasterketa hau antolatzeko lanetan lagundu diguzuen guztioi: herriko elkarte, taberna, udal, enpresa edota norbanako guztiei; ekonomikoki edo prestaketa lanetan, zuen babesa sumatzeak ilusio handia goz lanean jarraitzen lagundu baitigu.

Lasterketaren inguruko xehetasun guztiak www.leharrei.eus webgunean aurki ditzakezue, eta hortik aurrerakoak, apirilaren 9an goizeko 9:30ean! Eta animatu parte hartzera, dela lasterka edo antolaketa lanetan, egun bikaina izango da eta!

Endika Igarzabal Murua



GAZTAINA ZOPA

OSAGAIAK (4 pertsonentzako):

- Gaztaina erreak
- Tipula 1
- Porru 1
- 2 azenario
- 2 baratxuri ale

PRESTAKETA:

Ontzi handi batean olio apur bat berotu, baratxuriak txikitu eta frijitu kolore pixka bat hartu arte. Ondoren gainontzeko barazkiak txikituta gehituko ditugu. Minutu gutxi batzuetan barazkiak ondo erregosiko ditugu, gatza gehitzen diegun heinean. Gaztainak gehitu ondo txikituta eta barazki guztiekin nahastu. Dena ongi erregosita dagoenean, ura gehitu behar zaio, nork bere gustura. Urak irakiten duenean, su alperrean utzi, ordu bete behintzat. Badira zopa hau pure egiten dutenak irabiagailuaz, guk, aldiz, zopa gisa nahiago dugu.

Jon Murua Jauregi
Mikel Asurabarrena Bidegain



OLO HANBURGESAK

OSAGIAK (4 pertsonentzako):

- Tipula 1
- Kalabazin erdia
- Piper gorri 1
- Piper berde 1
- Azenario 1
- 250gr olo maluta
- Gatza
- Esnea
- Olio

PRESTAKETA:

Barazkiak ondo txikitu, ahalik eta finen. Ontzi batean, barazki guztiak nahastu, olo malutak gehitu eta gatz pixka bat botu, espeziaren bat ere nahas daiteke zaleak izanez gero. Barazki eta olo masa honi, forma eman ahal izateko, esne txorrotadaxo bat gehitu. Eskuekin masa landu, eta hanburgesa forma eman. Hanburgesa sendoak lortuz gero, zartaginean frijitu daitezke, baina olio asko hartzen dute. Ez bada hain sendoa ateratzen, labean ere egin daitezke desegin ez daitezen. Guk bandeja bat olioztatu eta labean 180 gradutan ordu erdiz egiten ditugu. Norbere gustuko saltsaren bat nahastu eta on egin!!!!

Jon Murua Jauregi
Mikel Asurabarrena Bidegain



AHOLKU DIETETIKOAK:

Oso menu egokia eta orekatua dela iruditzen zait, lehenengo eta behin oso olio gutxi erabiltzen delako prestakuntza hau egiteko garaian (labean errez gero hanburgesak) eta ez direlako ohikoak diren osagai nagusiak erabili. Batzuetan aldatzea ez da gaizki etortzen!

Beste alde batetik, indibidualki begiraten badiegu plater bakoitzeko osagai nagusiei, gaztainek oso gantz gutxi dute, karbohidrato konplexu asko -almidoia, adibidez- eta magnesio asko daukate. Magnesioaren funtzio garrantzitsuenetako bat kaltzioa eta fosforoa hezurretan hobeto xurgatzen laguntzea da.

Olo malutei dagokienez, aldiz, karbohidrato konplexu asko dituzte -azukre oso gutxi- energia pixkanaka emango digutenak eta mineral desberdin asko: zinka, burdina, magnesioa...

IGELTSEKITZA

– Kataraingo Miel Mari –

Joan den aspaldian ez omen da Gabirian igeltserorik izan, ez herrian bertan jaiotakorik, behinik behin; hala kontatu digu Kataraingo Miel Marik (Mikel Iztueta Arriola, 1958). Legorretako Martin jardun zen orain dela urte batzuk, orain bera aritzen den modura. Hala ere, badu akorduan, lehenago, mutikoa zen garaian, Merkatetik Felix zena nola jarduten zen igeltsero etxez etxe, beharra zeukatenei lagunduz, etxe zuriketean. Herriko festetarako etxea apaindu egin behar izaten omen zen, edo sukalde pintatzen baztuetan, edo sabaien bat hurrena. Nahiz eta berak ez ezagutu lanean, Jauregiko Bizente zena ere hargin aritu omen zen.

Miel Marik, euren bizileku izango zen Katarain Azpi baserria egiten ari zirenean, 16-17 bat urte izango omen zituen. Ordurako eskolatik aparte zebilen, eta hala hasi zen igeltsero-lanean laguntzen Andres Lasa zaldibiarrekin eta gaineratikoekin. Behin etxean proba eginda, lana bazela eta hurrena Itsasondoko eliza berritzen hasi ziren. Horrela, bada, halabeharrez hasitako lan hura urteen joanean ofizio egin du; dagoeneko berrogei bat urte egin baititu langintza horretan. Horieta-tik hogeita hamar pasatxo, gainera, hasitako enpresa berean, hasieran 10 bat urte plantillan eta gero autonomo. Hasitako gauza guztiek bezala, ordea, enpresa hartako lanak ere izan zuen akabera. Krisiak gogor jo zuen garai horretan, lanik ez zegoela denentzat,



eta bere kasa lanean hasi behar izan zuen. Lanik ez zitzaion falta izan, hala ere, Gabirian bertan batetik eta bestetik deitzen baitzioten; gauzak horrela, langile bat hartzeko aukera izan zuen aurrerago, eta baita furgoneta bat erostekoa ere.

Urte horietan guztietan izandako aldaketak aldaketa, lanak berdina izaten jarraitzen duela esaten du, prozesua ez dela aldatu. Hori bai, lehen, igeltseroa tabikeak, sukaldeak, bainugelak eta horrelako gauza jakinak egiten aritzen zen; hala ere, orain 40-50 urte asko zuriaketak izaten ziren.

Orain pintura emandakoan dena pintatu esaten da, baina garai hartan pinturarik ez zen eta karearekin zuritzen ziren paretak. Kareari anil pixka bat nahasten zitzaion, eta, oraindik eta kolore zuriagoa hartzen zuen. Hala, bidoi batean "asentatzen" utzi eta brotxa batekin pasatzen zen. Hargina, aldiz, harrizko paretak egiten eta etxea urreak edo inguruak berritzen jarduten zen.

Horretan izan da aldaketa, orain ez dago horrenbeste espezializazio, ez da hargin / igeltsero bereizketarik egiten, lana izatea da kontua, eta inork ez du ezezkorik esaten. Lanerako tresnerietan ere eman da aldaketa; esaterako, lehen azulejoak masarekin kolokatzen ziren eta gaur egun kolarekin, eta metro gehiago botatzen dira orduan baino. Garabiarekin ere gora eta behera eskuz egin beharreko makina bat buelta aurreratzen dira. Baina aurrerapenak aurrerapen, Miel Marik dioenez, euren beti izan da asto-lana; orduan ere bai eta baita orain ere.

Hasierako urteetan baserriren bat edo beste zuritzea ere tokatu zitzaion. Geroago lan-karga handiko urteetan Donostiako Anoeta Hotela eraikitzen jardun ziren, baina orduan dena etxe blokeak izaten ziren; Zaldibian, esa-terako, etxe asko egin zituzten,

baita Zumarragan ere, eta Gabirian bertan bakarren batzuk. Denetik egitea tokatu izan zaio, eta oraindik ere hala jarduten da berdin fatxada konpontzen, bainugela edo sukaldeak egiten, azulejoak jartzen edota harriekin paretak egiten. Horrenbeste orduetan zenbait kontu eta pasarte ez ote zituen biziko lanean edo lan itxuran, denak gogoratzen ere lanak. Gai hori aitatuta ez da isilik geratu, ez horixe, askorik pentsatu gabe irribarre gaixtoa egin eta segituan esan du: "beti tokatze`ittuk. Bat Itsasondon e tokatu huan, bidoi en sartutakoa! Itsasondoko elizan ai ginen garaien bidoi en



buruz behera sartu nian bat. Oa indio re beittu beittu eitteik. Itsasondon elizea arrelatzen ai ginutzean, kixton aldamiokin, barru guztie dana aldamiotz beteta, ta tetxuk arrelatzen ai ginutzean. Eta gallegoa o etzekiat zer huan, hemen jaiotakoa Beasainen bizi zana o... Hala goien ai gaittuk gu lanen da, hura peoi o zeoan beheran da:

Oiga! Esan ginuan, erramientak botatzeko behetik gora.

Etzian botatzen, esanda.

Baja tu si quieres! Esan zian

Eh? Ahora mismo!

Hala bajatu neok behera ta, heldu nioan da, sakristin aurren zeoan bidoi, uden bidoi zeoan. Ta jata han sartu nian buz behera!

Oa indio hola beitzen ziak, baino oa indio saludatzen ziak eh!"

Lehen esan bezala, garai zailenean

egoera berrira moldatzen jakin behar izan zuen Miel Marik lanean bere kabuz hasteko apustua eginda. Geldi egoteko gogorik ere ez zuela argi zuen, bai baitzekien lanik egin ezean, jai zuela. Kontuak kontu, joan deneko bost urte hauetan ez omen zaio lanik falta izan; bera dabilen planean lana ba omen dago. Tartean-tartean egunen bat edo beste egiten omen dituzte geldirik, baina normalean ez omen da askorik luzatzen. Jakina da gaur egunean gero eta gutxiago eraikitzen direla etxeak, eta gehienbat "txapuzatan" edo zaharberitze lanetan jarduten dira; denetik egiten duenarentzat ba omen da la-

nik, lan handirik ez baina...

Garbi dauka zer den egin behar duena: pasatu gabe, baina bere moduan lana egin. Gabirian eta inguruetan ere bai baitaki gauzak kurioso xamar egitea, edo horretarako ahalegina egitea, behintzat, gustatzen zaigula denoi ere.

Ofizio hau ez dago galduta, ezta gutxiagorik ere,

baina bertako jendea erretiroa hartzen ari da eta gazteek ez dute erreleborik hartzen; orain dabilen gehienak kanpokoak omen dira. Aurrera begira, hala ere, mugimendu pixka bat igartzten hasita omen da, pentsa, lehen lanean jardundako enpresatik deitu eta haiei laguntzen ari da Azkoitian berarekin hizketa egiteko geratu garenean. Ez da seinale txarra. Gabiria eta inguruetan gustura dabil igeltsero, nabari zaio, gainera. Zenbait lekutara joan behar bada, arazorik gabe joaten dela dio, baina herrian bertan ikaragarri gustura aritzen da. Gainera, denok berarekin gogoratze horrek sekulako poza ematen diola esan digu, eta ez da ez gutxiagorako. Bejondeiola!

Iñigo Igartzabal Bidegain

GABIRIAR BERRIAK

GORKA ALDALUR IGARZA

- Nolatan Gabirira?

Ba, etxe bila nenbilen eta horrela nenbilela sortu zitzaidan Gabiriako aukera. Lanetik gertu eta leku politean.

- Zer moduzko giroa aurkitu duzu?

Egia esan ez naiz asko murgildu gabiriarrekin, baina lehendik ere ezagutzen ditut batzuk eta giroa ederra dela esango nuke. Ederki moldatzen dira gutxi izan arren.

- Zer falta zaio?

Komertzio txiki bat. Egunerokorako beharrezkoak diren gauzak erosteko. Lanetik bueltan igotzen naiz behar dudanarekin.

- Zein toki duzu gustokoen?

Zumarragara bideko pistak asko gustatzen zaizkit, izerdia botatzeko gogoia sartzen zaidanean. Bestela ez dut leku konkreturik esateko gehien gustatzen zaidanik.



ESTIBALITZ ALBERDI BURGOA

- Nolatan Gabirira?

Bertso munduak ekarri nau Goierri aldera. Mexikon, bertso topaketa batzuetan ezagutu nituen Blanka eta Iñaki, eta, aurrez, Clown ikastaro batean, Jokin. Familia bera bi bidetatik ezagutzera iritsi nintzen. Eta orain, Billabonan, Bertsozale Elkartearen ari naizenez lanean, Jokinek eskaini zidan Gabirian bizi izateko aukera, benetan eskertzen diodana.

- Zer moduzko giroa aurkitu duzu eta jendea?

Betiko ametsa izan dut herri txiki batean bizitzea; mendia, nekazaritza, auzolana, euskara... oso eroso sentitzen naiz Gabirian. Giro ederra aurkitu dut eta ez gazteen artean bakarrik, belaunaldien artean ere lotura naturala dago. Herri dinamiko bat aurkitu dut, oso bizia, parte hartzailea, irekia eta beso zabalik hartu nauena. Nahiz eta askok esan nire izaera irekiaren ondorio dela, sentitzen dudana hau gabiriarron meritua da.

- Zer du onetik Gabirik?

Herritarron arteko harremana, laguntzeko jarrera, elkartasuna, ... oso erraz bertakotu naiz. Ez gutxi kostata, baina ari naiz zuen arbola genealogikoa ezagutzen, eta ni arbola horretako parte ez izan arren, Gabiriako alaba sentiarazten nauzue, eta hori ez da ohikoa. Adibidez, umetxo bat plazara etortzen da eta denok zaintzen duzue zeuena balitz bezala, dena da denona, nola onura hala erantzukizunak. Herria denok zaretela eta denona dela sentitzen eta sentiarazten duzue. Bizikidetzarako lezio bikaina da.

- Zer falta zaio?

Kresala, itsasoa. Ezin dut eskatu hondartza bat, baina erreka fresko baten usaina, soinua entzutea faltan botatzen dut. Udaran, erreka garbi eta putzu freskoen bila ibili naiz, eta majo kostata, baina aurkitu ditut batzuk Goierri aldean.

- Zein toki duzu gustokoen?

Plazako miradora! Hango bakea, lausaitasuna, bistak, Aizkorri aurrez aurre, eta, batez ere, arbola horiek. Txikitan aitonarekin pasatako une gogoangarriak datozkit gogora. Aita marinela izan dugunontzat, aitona aita izan dugunontzat, horrek ez dauka parekorik. Aitona duela lau urte joan zitzaigun, eta han bakarrik ikusten banauzue, berarekin goxo nagoen seinale!

Aratz Igartzabal Bidegain





Barretxe baserria

DATU HISTORIKOAK.

(1965.URTERARTE).

-1892. urtean bertako Juana Inazia Osinalde Astaburuaga eta Mutiloako Juan Bautista Apaolaza Lasa ezkondu eta 7 seme-alaba izan zituzten.

-1933. urtean aurrekoen seme Juan Apaolaza Osinalde eta Gabiriako Oñatibitxiki baserriko Natibidad Elosegi Odriozola ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten.

-1928. urtean hasi zen Juan Apaolaza autobus zerbitzua ematen.

Gabiriako Barretxe baserriko
ezkontza 1933. urtean.
Juan Apaolaza Osinalde eta Nati-
bidad Elosegi Odriozola





Barretxe baserriko Juan Apaolazaren autobusa



Gabiriako Barretxe baserriko sendia Argentinako lehengusuekin 1950. urte inguruan:
Goiko ilaran ezkerretik-eskuinera: Osinalde (Argentinako lehengusua), Julian Apaolaza Eloseggi (semea), Joxe Apaolaza Eloseggi (semea), Juan Apaolaza Osinalde (aita), Natividad Eloseggi Odriozola (ama), Segurako Osinalde senar-emazteak, Juana Inazia Osinalde Astaburuaga (amona) eta Osinalde (Argentinako lehengusua).
Makurturik ezkerretik-eskuinera: Mari Karmen Apaolaza Eloseggi (alaba) eta Isabel Apaolaza Eloseggi (alaba).

Itzaitegi baserria



DATU HISTORIKOAK

(1965. URTERARTE).

-1885. urtean baserri honetako Frantzisko Goia Telleria eta legazpiako Joxepa Plazaola Ugalde ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten.

-1919. urtean aurrekoen seme Joxe Antonio Goia Plazaola eta Gabiriako Alkain baserrian jaio eta Gabiriako ostatuan bizi izandako Isabel Telleria Gurrutxaga ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten.




Gabiriako Itzaitegi baserriko ezkontza 1919. urtean.
Isabel Telleria Gurrutxaga eta Joxe Antonio Goia Plazaola.



Gabiriako Itzaitegi baserriko sendia 1920. urte inguruan.
Argazkian Juan eta Eladio semeak falta dira garai horretan Argentinan bizi bait ziren.
Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Antonio, Felipa eta Joakin Goia Plazaola anai-arrebak.
Beheko ilaran: Frantzisko Goia (aita) eta Joxepa Plazaola Ugalde (ama).



Gabiriako Itzaitegi baserriko sendia 1947. urte inguruan:
Atzean ezkerretik eskuinera: Andres, Maria Jesus, Joxe Mari, Inazio eta Patxi Goia anai-arrebak.
Aurreko ilaran: Joxe Antonio Goia Plazaola (aita) eta Isabel Telleria Gurrutxaga (ama).



Andres Goia Telleria 1947



BERRIAK LABUR

2015a egunez egun

URTARRILA

- 1.** Herrian 497 lagun erroldatuta.
- 1.** Langabezia tasa %4,26koa zen (11 langabetu).
- 2.** Landeta baserrian sute txikia: tximiniak su hartu zuen.
- 3.** Debako Soro Ferian Anttoni Murgiondok (Bekoetxe) frutatan 3. saria.
- 6.** Mikel Mandiola gazteetan garaile eta Felix Maiz 3. Legazpiko Erregeetako bola lehiaketan.
- 10.** Euskal presoan aldeko manifestaziora 22 gabiriar joan ziren, autobusean.
- 11.** Taldekako bola txapelketaren lehen saioan, Osinalde A 7. eta Osinalde B 9., Añorgan.
- 11.** Andoni Aizpuru telebista aurkezleak ireki zuen Hernaniko sagardo denboraldia, Ana Urrutia lankidearekin.
- 16.** Elurra egin zuen. Aztiria, zurituta.
- 17.** Urkiztegiko Iñaki Etxeberriak eta familiak Bengoetxe txakolin uzta berria aurkeztu zuten, Getarian.
- 18.** Taldekako txapelketaren bukaeran, Osinalde A 8. postuan (487) eta B 9. (464), Mutiloan.
- 19.** Elurra egin zuen, goizaldean. Kaskoa zurituta.
- 20.** Joxe Mari Mujika Noare ETB1-eko Euskal Herria zuzenean saioan atera zen, Ibon Gaztañazpik elkarrizketatuta.
- 21.** Noare-Etxeberriko Juanita Lazkano eta Joxe Ramon Aramendi EH zuzenean programan atera ziren, Ordiziako azokara saltzera joaten 52 urte daramatza Lazkanok.
- 22.** Elurra, Aztiritatik beherago zurituta.
- 22.** Yoga klaseak hasi ziren.
- 22.** Eskola Txikien festaren bloga ireki zuten Interneten.
- 23.** Euskal Herriko Mus Txapelketarako kanporaketa jokatu zen, Ostatuan. Jokin eta Jon Murua garaile, Joxean Ormazabal Mapa eta Mikel Asurabarrena bigarren.
- 23.** Autopista Elektrikorik Ez plataformak goi tentsioko linearen aurka "egoera larriaren berri" eman zuen, kultur etxean.
- 25.** Goierriko Erromeria Birako dantzaldia egin zen, plazan, herriko musikariekin.
- 25.** Balentzategi eskolan 1982-2015 bitartean ibilitako 88 lagunek argazkia atera zuten, eskaileretan.

- 25.** Herriko 12 bolari Binakako Txapelketan hasi ziren lehiatzen.
- 28.** EH Zuzenean-ekoak Kortan grabatzen izan ziren, Lontxo Ormazabal sukaldariarekin.
- 28.** Ampo Ordizia errugbi taldeko jokalaririk batzuk eskolan izan ziren.
- 30.** Korrika 19 aurkezteko bilera egin zen, kultur etxean. Batzordea eratu zuten herrian.
- 30.** Eurite handiak, erreka ia irten beharrean.
- 30.** Igeribar Errotako Eztanda errotako harrizko presa puskatu eta eraman zuen urak.

OTSAILA

- 1.** Elurra egin zuen, herri gunea zurituta.
- 3.** Elurra egin zuen.
- 4.** Santa Ageda bezperan koplakantari eskean, goizean eskolakoak, arratsaldean Osinaldeko taldea.
- 4.** Hotz eta izotz handia. -4°C neurtu ziren Zumarragan.
- 4.** Jaurlaritzak Ertzaintzaren berantolaketara egin, eta Gabiria Oriako komisaldegia zerbitzupuan gelditu zen.



Santa Ageda bezperan eskolakoak-Balentzategi



Eztanda erreka goraino, 2015-1-30-A.Maiz

- 5.** Elurrez zuri esnatu zen herria.
- 5.** Diputazioak eta Ur Kontsurtzioak Gabiriako ur saneamendu sarean inbertsioak egiteko hitzarmena sinatu zuten. Ur zikinen hoditeria Ormaizte-gikoarekin lotzeko zen.
- 5.** Elurra egin zuen, laugarren egunez jarraian. Hotz handia, -5°C .
- 12.** Diputazioak esan zuen Gipuzkoan gutxien birziklatzen zuten herrien artean zegoela Gabiria, abenduan %51ko tasarekin.
- 13.** Eskolan inauteri festa ospatu zuten, antzinako zibilizazioen mozo-rruekin.
- 13.** Diputazioaren udalak finantzatzeko funtsaren likidazioan, udalaren alde 3.323,95 euroko saldo positiboa geratu zen.
- 14.** Guri5 taldeak Beasainen erromeria girotu zuten.
- 19.** Oroitz Maiz Morea hil zen, 31 urterekin, Bartzelonan. 14ko gauetan ezbeharrak izan zuten, afaltzen ari zela.
- 20.** Endika Igartzabal bertsolariak Abra Sariketako finalean kantatu zuten. Aratz Igartzabalek eta Maialen Akizuk, Legorretako festa batean.
- 20.** Luiziak errepide zati bat eramanez, Gurutz-Bakarretik beherago.

- 21.** Irakurle Txokoaren 3. saioa egin zen, Eider Rodriguez idazlearen Hargia eleberriarekin.
- 21.** Elurra egin zuen, 600 metroz goitik.
- 21.** Bi musulari bikotek (Jokin eta Jon Murua, eta Mapa-Mikel Asurabarrena) Gipuzkoako finalean jokatu zuten, Alegian; baita Txomin Bidegain ere, Ezkioetik sailkatuta.
- 22.** Sutearo suteen aurkako asaguru taldeak urteko batzarra egin zuten, kultur etxean. Herrian 35 bazkide zeuden.
- 25.** Gabiriarrak bertsolariek Ordizian bertso-triki poteoan parte hartu zuten, Atera lehiaketako finalisten arteko dema gisa.
- 25.** Korta jatetxeak kalitate turistikoaren konpromiso ziurtagiria jaso zuten, Gasteizen.
- 26.** Udalak Interneteko webgune ofizialarentzat .eus domeinua hartu zuten: gabiria.eus.
- 28.** Goierriko 27. Bola Txapelketa Gabirian hasi zen. Joakin Izagirre segurarra garaile (47); Iker Etxezarreta 4. (46).
- 28.** Osinalde elkarteak urteko batzarra egin zuten.

MARTXOA

- 1.** Legazpi-Gabiria 17. Rallyesprinta Joxe Labaka-Aitor Otaegi azpeitiarrek irabazi zuten. Parke itxia, hasiera eta sari ematea Legazpin egin ziren, bigarren urtez jarraian.
- 1.** Lehendakari bola txapelketaren lehen jardunaldia Juan Ramon Aramendik (49) irabazi zuen, Idiazabalen.
- 1.** Andoaingo piano jaialdian Eraitz Gorrotxategi Zuaitez urrezko domina eta Goreti Izagirrek zilarrezkoa lortu zuten.
- 6.** Eskolakoek Eskola Txikien arteko kirol topaketan parte hartu zuten, Tolosako Berazubini.
- 6.** Ipuin kontaketa irekia egin zuten eskolan.
- 6.** Martxoan Bertsoa bertso lehiaketan Gabiria Y taldeak kantatu zuten (Jokin Murua, Aitzol Iturbe eta Iturri), Urretxuko Fox-en. Bigarren geratu ziren.
- 7.** Emakumeek afaria egin zuten, Ostatuan, nazioarteko egunaren bezperan.



Elurra, 2015-2-6an-Aimar Maiz



Osinaldeko mus txapelketa-Aitor Goia

-7. Martxoan Bertsoan Gabiri X taldeak kantatu zuen (Aratz Igartzabal, Mikel Asurabarrena, Endika Igartzabal). Irabazi egin zuten.

-7. Txomin Bidegainek eta Simon Idiakez ezkiotarrak Euskal Herriko Mus Txapelketaren finalean jokatu zuten, Lekeition. Ezkio-Itsasoko kanporaketa irabazi, eta Gipuzkoako finaletik sailkatu ziren.

-8. Maerdiko Aldapa txirringuzale taldeak bazkaria egin zuen, 2014ko lasterketen porrarekin.

-9. Alkain-Barren etxebizitza berrien promotorearekin bilera informatiboa egin zuen udalak, herritarrei irekia. Etxeak saldu ezinik zebilen enpresa.

-9. Igeribar Errota baserrian jaiotako Isidora Izagirre Artsuaga hil zen, 96 urterekin, Legazpin.

-13. Osinalde 37. Mus Txapeleka (15 bikote) Iñaki eta Iker Etxezarreta anaiek irabazi zuten, finala Arantxa Bidegain-Josetxo Sagarnari irabazita.

-13. Martxoan Bertsoan Maialen Akizuk kantatu zuen. Ez Don 13 bere taldeak irabazi zuen, eta finalera sartu ziren, Gabiri X taldea ere bai.

-14. Udaberri Kulturala egitaraua hasi zen, maiatzaren 31ra arte 16 egunetan ekitaldiak egiteko. Gabiriako

Haur Abesbatzak eta Oñatiko Ganbara Txiki haur koruak kontzertua egin zuten.

-14. Jokin Muruak Bertsolaritzaren sekretuak bertso-ikuskizunean aktore-bertsolari gisa parte hartu zuen, Zaldibarren.

-14. Zaldibiako Osinberde bertso sariketarik Eneritz Artetxe irabazlea eta Xabi Igoa sailkatu ziren Osinaldera.

-14. Bi pilotuk Goierriko II. Rallye-sprintean parte hartu zuten, Lazkao-Zaldibia-Gaintzan: Xabat Goikoetxeak (14.) eta Eñaut Igartzabalek.

-14. Goierriko bola txapelketaren 2. saioan Iñaki Maiz 2. eta Joxe Maiz 3. izan ziren.

-15. Goruntz taldeak Zaldibiako 25. Dantzari Txiki egunean dantza egin zuten.

-16. Eskola Txikien festarako materiala eta udako arropa atera zuten.

-19. Urteko lehen txirringulari karrera igaro zen herritik (Atagoiti eta Gabiria): Zumarragako Hiria master mailako proba.

-21. Gabiriarrak bertsolariek Mallabian bertso-desafio batean kantatu zuten (Aratz Igartzabal, Gorka Maiz, Endika Igartzabal). Hirurak Gipuzkoako Txapelketan aterako ziren.

-21. Ordiziako Argi-Berri bertso sarietik Oihana Iguaran irabazlea eta Gemma Urteaga sailkatu ziren Osinaldera. Maialen Akizuk ere kantatu zuen.

-22. Aste Santuko ospakizun bereziak hasi ziren, Andre Mari elizan.

-22. Afaria eta Artista Gaua egin ziren, 41 lagunekin, Osinalde elkartearen, Korrika19ren alde.

-23. Korrika19 igaro zen, 03:30a aldera, euri eta elurpean, Alegia eta Santa Luzia ibarrean gora.

-25. Parrilla ikastaroa eman zuen Kortako Jose Inazio Soralezek, Osinalde elkartearen. 17 lagun.

-26. Sandra Cliville artistak Argia Oinarri diseinu lehiaketan lehen saria jaso zuen, Erreterian. Artilez ehundutako txaleko bat aurkeztu zuen, Artilearen berotasuna, argiaren goxotasuna izenekoa.

-27. Sua filma eman zen, kultur etxean. Egileak eta zuzendariak bertan izan ziren.

-27. Martxoan Bertsoko finalean aritu zen Gabiri X taldea (3.). Maialen Akizuren Ez Don 13k irabazi zuen.

-27. Eskolakoek Korrika Txikia egin zuten, pilotalekuan.



Eskolako ikasleak 1982-2015-Ane Arrieta



Gabiriarrak Korrikan-Dioni Santoyo

-28. Aztiri bertso sariketa jokatu zen, Aztiri-Bat elkartearen. Aitor Bizkarr (Txaber Ormazabalaren ordean), Jon Gurrutxaga, Eñaut Martikorena, Maddi Sarasua, Mikel Iturriotz eta Aratz Igarzabal gabiriarrak. Aztiri Saria, entzuleen botoz, Igarzabalek irabazi zuen. Osinaldera Gurrutxaga eta Martikorena sailkatu ziren.

-28. Imma Albisua aukeratu zuen EH Bilduk Zumarragako alkategai.

-29. Gabirian bukatu zen Lehen-dakari bola txapelketa. Egunkoia Jose Angel Belauntzarane (48) irabazi zuen, eta orokorra Patxi Arrondok.

-31. Ikurrinarentzat masta berria eta lehenagokoa baino handiagoa kokatu zuten, futbol zelai alboan.

APIRILA

-2. Movistar taldeko hainbat ziklista, Gorka eta Jon Izagirre tartean, Gabirian ibili dira entrenatzen.

-5. Aberri eguna ospatu zen, plazan. Bertsoak, dantza, abestiak eta udal ordezkarien hitzaldiak.

-8. Euskal Herriko Itzuliaren 3. etapa Gabiriatik igaro zen bi aldiz eta

Atagoitik behin, Gasteiz-Zumarraga etapan. Pasaera-ordenak: Gabiria1 (Ormaiztegitik): 1. Omar Fraile, 2. Lieuwe Westra, 3. Hugh Carthy; ihesean laurak. Atagoiti (Motxorrotik): 1. Lieuwe Westra, 2. Gorka Izagirre, 3. Jon Izagirre; Westra ihesean, 51 segundorekin. Gabiria2 (Kamioikurutzetik): 1. Westra (32 segundorekin). Zumarragan Joaquim Rodriguez Purito garaile.

-10. Udalak jakinarazi zuen udal hauteskundeetan zerrenda bateratua eta bakarra aurkeztuko dela herrian.

-11. Zuazola-Atagoiti antzinako herribidea auzolanean garbitu zuten, 9 lagunek.

-11. Guri5ek Beasainen jo zuen.

-11. Osinalde 44. bertso sariketa Eñaut Martikorena hernaniarrak irabazi zuen, 2. Eneritz Artetxe eta bertso onena Gemma Urteagak. Beste bertsolariak: Xabi Igoa, Jon Gurrutxaga eta Oihana Iguaran.

-12. Bi eztigile gabiriarrak Gipuzkoako lehiaketan parte hartu zuten, Zegaman: Juan Elgarresta eta Igor Altuna.

-12. Guri5ek Zumaian jo zuen, festetan.

-13. Sukaldaritza ikastaroa eman zuen Mutiloako Ostatu Nereak, Erbie elkartearen.

-15. Eskola atzean komun publikoak jartzeko obra hasi zen.

-17. Lau kirolarirekin solasaldia egin zen: Iñaki Artola pilotaria, Irati Anda eskalatzailea, Maite Maiora gabiriarrak jatorriko korrikalaria eta Gorka Izagirre txirrindularia. Igor Sarriegi kazetariak gidatu zuen.

-17. Gabiria Hautesle Elkartearen (GHE) hautagaitza aurkeztu zuten Azpeitaldeko Hauteskunde Batzordean: 1. Iñaki Etxezarreta Egiguren, 2. Iñigo Igarzabal Bidegain, 3. Endika Igarzabal Murua, 4. Leire Murua Lopez, 5. Jose Ramon Peñagarikano Alustiza, 6. Xabat Goikoetxea Deba eta 7. Arantxa Bidegain Ormazabal. Ordezkoak: Jon Ander Jaka, Xabier Arratibel eta Iban Maiz.

-18. Eskola Txikien V. Jardunaldia Gabirian egin zen, bost hitzaldirekin. 50 lagun entzuten.

-18. Oroitz Maiz Morea musikari zenari omenaldia egin zioten, Barzelonan, Kataluniako Musika Eskola Nagusian. Gabiriatik autobuskada bat lagun joan zen.

-19. Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta musikariek Baga-biga-higa hitzaldi musikatu egin zen, antzokian.

-19. Koldo Muruak Gipuzkoako San Huberto ehiza txakur lehiaketa irabazi



Aztiri bertso sariketa - Miren Deba



Osinalde sarian Eñaut Martikorena eta Eneritz Artetxe - A. maiz

zuen, Koni epagneul-bretoi txakurra-
rekin, Elgoibarren.

-21. ETBleko Tribuaren berbak
saioan Gabiria eta gabiriarrak (Jokin
Murua zinegotzia, Marian Bidegain
Maizpideko zuzendari ohia) agertu zi-
ren.

-22. Felix Zubia medikuak hitzaldia
egin zuen, bihotzekoari buruz.

-22. Gabirian udal hauteskondee-
tarako bi hautagaitza argitaratu ziren:
GHE eta PSE-EE.

-22. Baztarrakak Ordiziako azokan
gazta aurkeztu zuen, 12 hilabete, 12
produktu egitasmoan.

-23. Udalak 2015eko aurrekontua
onartu zuen, 559.000 eurokoa. Azti-
rian edateko uraren sarea eraiki, hile-
rrian kolunbarioak jarri, eskola atzean
komun publikoak egin, eta Murgilgo
herri basoan bertako zuhaitz espezieak
mantentzea ziren asmo nagusiak.

-23. Azkartza baserrian jaiotako
Juan Mari Legorburu Gurrutxaga hil
zen, 66 urterekin, Zizurkilen.

-24. Ez Aurkeztuak taldeak (Eñaut
Asurabarrena eta Maren Basterretxea)
kontzertua egin zuen, Ostatuan.

-25. Atagoitiko errege-bide zaharra
ezagutzeko ibilaldi gidatua egin zen,
Jose Luis Ugarte adituarekin.

-25. Hor konpon, Mari Anton hau-
rrentzat antzerkia egin zen.

-25. Iñaki Maizek ezin izan zuen
Goierriko Bola Txapelketa irabazi, Se-
guran. 2 puntuko aldearekin lider iritsi
zen, baina Andoni Berasategik jantzi
zuen txapela.

-26. Dantzari Txiki Eguna ospa-
tu zen Gabirian, Goruntzek antola-
tuta. Amets Bide (Ordizia), Irrintzi
(Zumarraga-Urretxu), Gure Ametsa
(Mutriku) eta Mollarri (Zarautz) etorri
ziren.

-26. Eskola Txikien festa antolatze-
ko herri batzarra egin zen.

-27. Sandra Cliville artisauek Fel-
troaren Europako Jardunaldietan par-
te hartu zuen, Felletin herrian (Limou-
sin, Frantzia).

-29. Goierriko autobus zerbitzu
berria aurkeztu zuten, eta Ormaiztegi-
Gabiria-Ormaiztegi linea izango zela
aurreratu zuten.

-29. Gipuzkoako Bertsolari Txapel-
keta 2015 aurkeztu zuten, eta lau ga-
biriarrak parte hartuko zuten: Endika
Igartzabal, Gorka Maiz, Maialen Akizu
eta Aratz Igartzabal.

-29. Agerretxemendin jaiotako Ma-
ria Cristina Jauregi Goiburu hil zen, 91
urterekin, Azkoitian.

MAIATZA

-1. Atagoitiko Andres Zufiriak Urbian
artzain 50. denboraldia hasi zuen, eta
Irazolako Jose Luis Uribe-Etxeberriak
40.a.

-1. Gabirian arrain saltzaile urte as-
koan ibilitako eta herrian etxea zeukan
Jose Peralto Noriega hil zen, 85 urtere-
kin, Ormaiztegin.

-2. Erabakitzeako eskubideaz sola-
saldia egin zuten Eneko Goia gabiriarr
jatorrikoak (EAJ), Donostiako alka-
tegaiak, eta Idoia Ormazabalek (EH
Bildu). Gure Esku Dagoren Jostunak
dokumentala eman zuten.

-3. Jubilatuen eguna. Bazkarian 45
jubilatatu, Ostatuan. Segundo Aranburu
Odria (Udaletxea) eta Maria Jesus
Garcia Larrea (Oñatibi Aundi) omendu
zituzten.

-5. Jesus Artola argazkilari azpeitia-
rrak erakusketa jarri zuen, Ostatuan,
Gabiriako argazkiena.

-7. Diputazioaren Partaidetzako au-
rrekontuak egitasmoaren bilera egin
zen, 20 milioi zertan erabili ekarpenak
jasotzeko.



Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta-Jokin Murua



Ez Aurkeztuak Ostatuan

- 8.** Maialen Akizuk eta Jon Gurrutxagak Plazatik gaztetxera bertso lehiaketako saioa irabazi zuten, Soraluzen.
- 9.** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa hasi zen, lau bertsolari gabiriarrekin.
- 9.** Autobus zerbitzu publiko berria zerbitzuan hasi zen. Gabiria-Ormaiztegi linea lehenengo aldiz.
- 9.** Gorka Maizek eta Aratz Igarzabalek Plazatik gaztetxera bertso lehiaketako saioa irabazi zuten, Mutrikun.
- 10.** Goi tentsioko linearen aurkako eguna ospatu zen, Deikaztelun (Nafarroa).
- 10.** Goruntzek Ezkion dantza saioa egin zuen, jaietan.
- 12.** Udalak emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako protokoloa sinatu zuen, Seguran.
- 15.** San Isidro nekazarien eguna ospatu zuten, bigarren urtez Kortan.
- 16.** Goierriko Eskola Txikien festa ospatu zuten, Gabirian, arratsaldean.
- 16.** Hiru bolarik Gipuzkoako Txapelketan jokatu zuten, Legazpin: Iñaki Maiz, Nikolas Igartzabal eta Naiara Peñarikano.

- 16.** Izargoena baserrian bizi izandako Maria Kruz Alkorta Sasiain hil zen, 89 urterekin, Zumarragan.
- 17.** Jon Murua Jauregi eta Iosu Isaiasek (Isuo Sasiia) Idiaren zaintzari buruzko hamar estanpak diskoa aurkeztu zuten, Urretxun.
- 17.** Goruntzek Ordiziako 4. Dantzari Egunean eta Zumarragako Dantzari Txiki egunean dantza egin zuen.
- 17.** Kataraingo Iker Iztueta eta Joseba Iztueta 14. Zegama-Aizkorri mendiko maratoia egin zuten.
- 17.** Legazpiko Izadi-Zaleak mendi elkarteak oinezko ibilaldia Gabirian egin zuen, Atagoititik Ormaiztegiara, "ataju" zaharrear.
- 20.** Makilari aldizkaria inprentatik atera zen.
- 22.** Eskola Txikien festarako bi-deoklipa erakutsi zuten, lehen aldiz, webgunean.
- 23.** Guri5 taldeak Beasaingo Loinatx auzoan jo du, jaietan.
- 24.** Hiru neska-mutikok jaunartzea egin zuten.
- 24.** Udal eta foru hauteskundeak egin ziren. Udalerako, GHE Gabiria Hautesle Elkarteak 215 boto (7 zinegotz), PSE-EEK 3 boto. Errolda: 392. Abstentzioa: %32,14. Baliogabeak: 12.

Zuriak: 36. Batzar Nagusietarako: EH Bilduk 125 boto, EAJk 104, Podemos-Ahal Duguk 12, PSE-EEK 7, Irabazik 4, PP-k 1. Errolda: 390. Abstentzioa: %33,07. Baliogabeak: 1. Zuriak: 7.

-26. Hilerriko kaperako kanpaia jaitsi zuten, soldatzeko. "1891 por Jose Lorenzo Balenzategui" jartzen du bandan.

-31. Txindata musika eskolako ikasleek kontzertua egin zuten, antzokian. Udaberri Kulturala bukatu zen.

-31. Baztarrikako Maria Teresa Pikasari Arrieta hil zen, 95 urterekin.

EKAINA

-2. Eskola Txikien festa aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten, eskola aurrean.

-2. Udal hauteskundeetako behin betiko emaitzak argitaratu zituen Espainiako Barne Ministerioak. GHEk 215 boto (7 zinegotzi), PSEk 3 boto.

-3. Oñatibi Txikiko Miren Agirrezabalak bertako gerezia eraman zuen Ordiziako azokara.

-3. Azkartza baserrian jaiotako Jose Miguel Legorburu Gurrutxaga hil zen, 84 urterekin, Donostian.



Isuo eta Jon Murua musika diskoa 2015 apirila



Joseba Iztueta Leitzako Mendi Erronkan 2015-5-30



Ander Geresta kartzelatik irtenda 2015-6-6

-4. Udal aurrekontua behin betiko onartuta geratu zen, alegaziorik jaso ez eta: 559.000 euro.

-5. Guri5ek Hegialde auzoan (Legazpi) jo zuen, jaietan.

-6. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatze fasea bukatu zen; Aratz Igartzabal igaro zen udazkeneko txapelketara, 17. postuan. Endika Igartzabal (33.), Gorka Maiz (44.) eta Maialen Akizu (46.) ez ziren sailkatu.

-6. Landeta baserrian bizi izandako Ander Geresta Azurmendi euskal pre-soa (Gabiria, 1978) Lugoko kartzelatik (Galizia) irten zen. 2000tik preso egon zen, 2012ra arte Frantzian eta geroztik Espainiako estatuan.

-10. Noare-Etxeberriko Juani Lazkanok lehenengo lekak (bainak) eraman zituen Ordiziako azokara.

-11. Diputazioaren Partaidetzako aurrekontuak ekimeneko bilera egin zen, Ordizian. Gabiriari dagokion gai bakarra jaso zen proposamen gisa: Gabiria-Mutiloa-Zerain-Ormaiztegi-Oñati lotzen dituen errege-bidea berreskuratzea.

-11. Euri erauntsi mardula bota zuen, iluntze-gavean.

-13. Udal berria eratu zen. Iñaki Etxezarreta izendatu zuten alkate,

ordura arteko alkate Ibon Elkarrestak Makila Jaitzierako hurriz makila eman zion. Udalbatzako kideak: Iñaki Etxezarreta Egiguren, Iñigo Igartzabal Bidegain, Endika Igartzabal Murua, Leire Murua Lopez, Joxe Ramon Peña-garikano Alustiza, Xabat Goikoetxea Deba eta Arantxa Bidegain Ormazabal. Beste herri batzuetan ere gabiriarrek edo gabiriarr jatorrikoek hartu zituzten karguak: Eneko Goiak Donostiako alkatetza, Alaitz Igartzabal zinegotzi Antzuolan, Urtzi Iruin Lazkaon...

-13. Gorka Maizek eta Aratz Igartzabalek Plazatik Gaztetxera lehiaketako finalean kantatu zuten, Markina-Xemeinen (Bizkaia).

-14. Gipuzkoako Eskola Txikien 28. Festa ospatu zen, Gabirian.

-16. Udalaren alkateorde Iñigo Igartzabal izendatu zuten, alkatetza ebazpenez.

-19. Ez Aurkeztuak musika taldeak Ordiziako Oiangun kontzertua egin zuten.

-21. Hainbat gabiriarr Gure Esku Dagoren Gaur hautetsontzia, bihar erabakia jaialdian izan ziren, Donostian.

-22. Herriko udaleku irekia hasi zen, uztailaren 17ra arte. 34 haur eta lau begirale ibili ziren.

-23. San Joan bezperako sua egin zen.

-23. Guri5ek Seguran jo zuen, jaietan.

-24. Ainhoa Aizpuru Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu izango zela jakinarazi zuen Markel Olano ahaldun nagusiak. Aizpuru (EAJ) Sustapen Ekonomikoko, Landa Ingaruneko eta Lurralde Oreko diputatu kargua hartu zuen, biharamunean, Donostian.

-24. Oñatibi Txikiko Miren Agirrezabalak lehen sanjoan sagarra eraman zuen Ordiziako feriara.

-26. Santa Lutzi auzoan San Pedro jaiak hasi zituzten, 29ra arte. Musean, Urkiolako Iñaki Arratibel txapeldunorde geratu zen, Joxemari Zumarragarekin.

-27. Guri5ek Mutiloan jo zuen, jaietan.

-28. Goruntzek Mutiloan dantza saioa egin zuen, jaietan.

-29. Goruntzek Santa Lutzia-An-duaga auzoan dantza saioa egin zuen, jaietan.

-29. Diputazioak Gi-3540 errepi-dea (Zuazola-Motxorro, Kamiño zaharra) erabat itxi zuen zirkulazioarentzat, Sustrako kurbatik gorago bidea konpontzeko.

-30. Udal talde berriak eta aurreko



Udalbatza berria-A.Maiz



Eskola Txikien festa-Aimar Maiz

udal gobernu taldeak bilera egin zuten, karguak eta funtzioak txandatzeko.

-30. Bero sapa: 13:00etan 37 gradu. Alerta laranja, beroagatik.

UZTAILA

-2. Kurutz-Bakarretik beherago errepide barrenean sortu zen luizia konpontzen hasi zen Diputazioa.

-2. Ainhoa Aizpuru diputatuak lehengo aldiz Gipuzkoako Batzar Nagusietan parte hartu zuen, Zumarragako Antion, batzar ibiltarian.

-2. Guri5ek Zumarragan jo zuen, jaietan.

-4. Guri5ek Ataungo Aian jo zuen, jaietan.

-4. Itsaso-Deikaztelu goi tentsioko lineak kaltetuko dituen herrietako alkate berriek 2013ko Altsasuko Ituna berretsi dute, Altsasun bertan.

-6. Renferen tren zerbitzuak atzerapenak izan zituen, Gabiria parean dagoen Madril-Hendaia trenbideko errail-aldatzaile orratza hondatu zelako.

-9. Eskola Txikien festako antolakuntzako koordinazio batzordeak azkeneko bilera egin zuen, ixteko.

-10. Kamiño Zaharra zirkulazioarentzat ireki zuten atzera, ekainaren 29tik itxita egon ondoren, zati bat konpontzeko. Kurutz-Bakarretik beheragoko luizia egonkortzeko lanak ere amaitu zituen.

-10. Manu lurritaren arte erakusketak jarri zuten, Ostatuan: margoak eta eskulturak.

-11. Irakurle Txokoaren saioa egin zen, Truman Capoteren Odol hotzean liburuarekin.

-11. Baztarrikak kanpainako azkeneko gazta egin zuen.

-12. Iñigo Andola Oiarbidek (Errotaberrri) Beasaingo I. Murumendi mendiko maratoian 15. egin zuen.

-13. Gabiriako Udalbatzak lehengo udalbatzara egin zuen. Udal batzordeak izendatu eta banatu zituzten, bost: Hirigintza, Herri lanak eta Ingurunea; Ongizatea; Finantzak; Komunikazioa eta Garapena; eta Kultura eta Euskara.

-17. Herriko udalekua bukatu zen.

-17. Herri bideen aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantza argitaratu zuen udalak.

-17. Aztirian festak hasi ziren. Auzo afarian 60 lagun. Tokan Judith Artsuaga eta Josu Elortza garaile, bolatan Asier Agirre.

-17. Alegian festak hasi ziren. Sargardo dastaketan 15 etxetako edariak. Joselu Anaiak musika taldea omendu zuten, 30. urtea zutelako auzoko jaietan jotzen (1985ean hasi ziren, eta hurrezker, urtero).

-18. Aztiriko jaietan, bolatan eguneko tiraldia Felix Maizek irabazi zuen. Patata-tortilla lehiaketan 11 bikote; irabazle Mari eta Aloña Agirre. Futbol partida "zaharrek" irabazi zuten.

-18. Alegiako jaietan, mus txapelketa Txomin Bidegain-Ximon Idiakezek irabazi zuten.

-18. Kirol auto klasikoaren rallya Gabiritatik igaro zen, eguerdian geldialdia eginez Kortan.

-19. Aztiriko jaietan, XI. Mendi Lasterketa Juanjo Igartzabalek irabazi zuen (47:34), 2. Adde el Qayed andoindarra (47:57) eta 3. Iker Zurutuza idiazabaldarra (49:05). Emakumeetan 1. Imma Aranburu idiazabaldarra



Alegiako festak-Aimar Maiz



Udaleku irekiak-A.Maiz

(1:02:09), 2. Maider Pagola legazpiarra (1:10:33) eta 3. Miren Arizti legazpiarra (1:16:57). Auzoko helduenaren omenaldia Etxetxoko Jexuxa Agirrerri (Zabaletan bizi da orain). Bola lehiaketa Andoni Berasategi idiazabal-darrak irabazi zuen, gazteena Naiara Peñagarikanok.

-20. Diputazioak Gabiriari 17.795,82 euroko laguntza emango ziola jakinarazi zuen, 2.000 biztanletik beherako herri gisa, azpiegitura lanetarako.

-22. Alegian meza, Goruntzen saioa, hamaiketako eta umeentzat puzgarriak izan ziren, jaietan.

-22. Irizar enpresak autobusen aparkalekua zabaltzeko baimena eskatu zuen, Agerreberri ondoraino.

-23. Ez Aurkeztuak musika taldeak Mutrikun jo zuen, jaietan.

-23. Silvia Perez Cruz kantari kataluniarrak abesti bat eskaini zion Oroitz Maizi, Donostiako Jazzaldian Trinitate plazan eman zuen kontzertuan. Hari asko gustatzen zitzaion Sindo Garayren letrekin egindako pieza bat kantatu zuen.

-23. Anabel Aldalur mezzosoprano gabiriarraren kontzertu batean izan zen Felipe VI.a Espainiako erregea, San Lorenzo de El Escorialgo teatro-auditorioan.

-31. Makilari aldizkariaren argazki-erantzun lehiaketan emaitzak uzteko epea bukatu zen.

-31. Gabiriarratorriko Alex Aranburu Deba txirrindulari ezkiotarrak (ama Legorburu baserrikoa du), profesionalen lehenengo lasterketa lehiatu zuen, Getxoko Nazioarteko Saria. Murias Taldeak stagiaire modura fitxatu zuen urte bukaerara arte.

ABUZZTUA

-3. Mediku kontsulta itxi zuten, abuztuaren 28ra arte, oporregatik.

-4. Makilari aldizkariaren argazki-erantzunen lehiaketa Jose Inazio Asurabarrenak irabazi zuen. Hark asmatu zituen hiru argazkiak nongoak ziren: Errotaetxeko aska, Astiazaran Zahar baserria eta Isastegi baserriko bideko txabola.

-10. San Lorentzo eguna ospatu zuten Ugarana Goikoan. Meza, hamaiketako eta mus txapelketa izan ziren; auzo afaririk, ez.

-10. Ez Aurkeztuak taldeak Donostian jo zuen.

-13. Herriko festak hasi ziren. Makila Jaitsieran, pregoia Guraso Elkartekoek irakurri zuten. Bergarako zezentxoak, afizionatuen pilota partida (Apezetxea-Erostarbek 19, Labaka-Telletxeak 22), gazte afarian 126 lagun (eta 100 litro mojito) eta Eonian elektro-txaranga gauean.

-14. Festen 2. eguna: haur eta gazte olimpiadak, txistularien biribilketa, bertsolariak (Euskal Herriko hiru txapeldun: Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Amets Artzallus; eta Iban Urdangarin, Eneritz Artetxe eta Eñaut Martikorena), Jurgi magoa eta Joxe Replay taldea (iragarritako Izu Nauk ez zen etorri, kide batek min hartu zuelako furgoneta kargatzean).

-15. Andre Mari eguna. Josu Odriozolak irabazi zuen Ormaiztegitik txirrindulari igoera (11:41), inoizko alde txikienarekin: 5 zentimetro ere ez, Asier Izuzkitza bigarren. Nesketan Nerea Murua garaile (errekorra hautsiz, 15:20), gaztetan Eneko Aramendi. 62 partaide. Arrondo-Enetik gora Jon Eskisabel eta Izar Gaztañazatorre (5 partaide). Herriko gazteen musika kontzertua (Ixixti, Jon Murua, Asier Bidegain, Iban Maiz). Bolatan eguneko Martin Retegik (37), tokan Karlos Irastortzak. Mozorro gauean, 3gabe2 taldeak utzi aurreko azken aurreko kontzertua jo zuen. Gauean, lineako autobus bereziak gazte jendez beteta etorri ziren.



Txirrindulari igoeran esprinta-Xabi Altzelai



Guri5, 3gabe2 eta Salda Badago Gabiriako festetan

-16. San Roke eguna. Bi apaizek eman zuten meza (Jesus Mari Iturriotz eta Koldo Sarasola). Organoa Pepe Artzelusek jo zuen, eta azkeneko aldiz orduan egon zen Guillermo Aldalur Pikua, laguntzen. Txistor lehiaketa Amets harategiak (Urkiolakoarena) irabazi zuen, sei harategi, denak gabiriarrenak (oroigarri bana denei). Bolatan, egunekoa Jose Ramon Aramendi gabiriarrak, tokan Jose Antonio Calvok; bi egunetako txapeldunak Martin Retegi eta Naiara Peñagarikano (bola) eta Carlos Irastortza eta Marijo Olano (toka). Talco talde italiar ospetsua, The Riff Truckers eta Guri5 kontzertuan.

-17. San Roke Txiki eguna. Herri jokoak: bolatan 37 partaide (Iban Maiz eta Naiara Peñagarikano txapeldun); tokan 56 (Iñaki Maiz eta Naiara Peñagarikano garaile, gazteetan Xabier Aldanondo), eta tiragoman 71 partaide (Jesus Artola eta Aloña Murua irabazle; Jokin Izagirre gazteetan). Afari-meriendan jendetza handiegirik ez. Joselu Anaiekin dantzaldia.

-17. Lapurreta egin zuten kaskoaren goialdeko hainbat etxetan, herri afa-riaren garaian. Sei etxetan sartzen saiatu ziren, eta hirutan gutxienez lapurtu zuten.

-18. Herri garbiketa, festa ondoren. Langileen eta laguntzaileen afarira 92 lagun joan ziren.

-23. Ez Aurkeztuak taldeak Agurainen jo zuen.

-24. Alex Aranburu Deba gabiriari jatorriko txirindulariak Palentziako Itzuliko 4. etapa irabazi zuen, afizionatu mailan.

-27. Ez Aurkeztuak taldeak Zarautzen jo zuen.

-29. Guri5ek Zegaman jo zuen, jaie-tan.

-30. Eneko Aramendi eta Patxi Ormazabal mutikoez irabazi zuten Brinkolan haurren txerri harrapaketa. Patxik toka lehiaketan ere irabazi zuen.

-31. Euri zaparrada bortitzak bota zituen, aurreko egunetako bero sapa lehertuta (bezperan 37 graduko beroa izan zen).

-4. Haur eskolan 15-16 ikasturtea hasi zuten 0-1-2 urteko umeek.

-4. Gabiria zainpeko 12. ehiza eremu-an (Usurbe-Irimo) sartu zuen Dipu-tazioak, araudia berritutakoan.

-4. Indarkeria politikoaren biktimak izan diren udalerrietako alkateekin Eusko Jaurlaritzak egin duen bileran Gabiria ez zuten gonbidatu, nahiz eta bazegokion. Izan ere, 1977-3-8an Al-tzibar parean Guardia Zibilak tiroka hil zituen Sebastian Goikoetxea Ma-riezkurrena eta Nikolas Mendizabal Barandiaran kokapen geografiko oke-rran kokatu zituzten: Ezkio-Itsason.

-4. Ez Aurkeztuak taldeak Zarautzen jo zuen.

-5. Xabat Goikoetxeak 18. bukatu zuen Azkoitiko Rallyesprinta.

-5. Guri5ek Zarautzen jo zuen, Joxe Replayrekin (Gabirian izan ziren abuz-tuaren 14an).

-6. Goruntzek Zarauzko Euskal Jaie-tako dantzari txiki egunean dantzatu zuten.

-6. Bi gaztagile gabiriarrak sariak lortu zituzten Gipuzkoako Artzain Egu-neko 31. gazta lehiaketan, Legazpin: Karmele Murua (Ondarre, Segura) 6. eta Baztarrika 8.

IRAILA

-1. Guillermo Aldalur Zabala Pikua hil zen, 82 urterekin.



Bola txapelketa-A.Maiz



Joselu Anaiak-Aimar Maiz

-8. Bi udal zinegotzik kargua hartu zuten Sasieta Mankomunitatearen Batzorde Errektorean: Arantxa Bidegain ordezkari, eta Iñigo Igartzabal ordezko.

-9. Balentzategi herri eskolak 15-16 kurtsoa hasi zuen, 36 ikaslerekin (jaz baino 2 gutxiago) eta 8 irakaslerekin (lanaldi desberdinetan).

-9. Baztarrika Ordiziako Euskal Jaie-tako gazta lehiaketaren finalera sailkatu zen. Bekoetxek asteroko azokazaleen aipamen-sari bat jaso zuen.

-11. Ordiziako I. Bola txapelketan (bolatoki desmuntagarrian) Naiara Peñagarikanok irabazi zuen nesketan, eta Felix Maizek 3. egin zuen gizone-tan.

-12. Aieteko (Donostia) toka txapelketa Joxe Maizek irabazi zuen.

-12. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurkezpenean, Beasain, Aratz Igartzabal izan zen partaide gabiriarrak bakarra (udaberriko fasetik sailkatua).

-18. Jose Luis Ugartek eta Merte Urteagak (Burdinola, Arkeolan) Legazpin aurkeztu zuten Erdi Aroko burdin arkeologia. Legazpi barrutiko zepadiak liburuan, Gabiriako 16 zepadiren berri eman zuten.

-18. Udalak euskara ikastaroa antolatu zuen.

-19. Alex Aranburu Deba gabiriarrak jatorriko txirindulari amateurrek 28. Oñatiko Proba irabazi zuen.

-20. Gorka Maizek irabazi zuen Nortasun Agiri Atzeritarren Euskal Herriko II. Jaurtiketa, Oñatin, Argia Egunean. 28 metro ingururaino bota zuen.

-21. Hilerrian 48 kolunbario jartzea erabaki zuen udalak, Diputazioak emandako 17.000 euroko laguntza erabiliz eta beste horrenbeste jarritz.

-21. Judo ikastaroa hasi zen.

-25. Aztirian edateko uraren sare berria zerbitzua ematen hasi zen. Arriarandik jarri zuten ura.

-25. Zunba kirol-dantza ikastaroaren deialdia egin zuten.

-26. Guri5ek Gaintzan jo zuen.

-26. Ehiza txakurren erakustaldia egin zuten 40 bat ehiztarik, Murgilen.

-27. Arantzazura urteko erromesaldia egin zuten 24 gabiriarrak.

-27. Amurrion (Araba) 22. Artzain Egunean Gabirian 1945ean jaiotako Carmen Perez de Albeniz artzaina omendu zuten. Munainen bizi da.

-28. Ilargi eklipsea izan zen, 04:00ak aldera. Ilargi betea ohi baino %15 handiago ikusen zen.

-29. Patxi Ormazabalek Lazkaoko San Migel pilota txapelketako finala jokatu zuen, infantiletan.

-30. Ehiztari batek min hartu zuen, ehiza postua eraikitzen ari zela 2-3 metrotik erorita, Ormaiztegi eta Gabiria bitartean.

URRIA

-2. Joseba Iztueta gabiriarrak eta Alex Sukia zaldibiarrak Boliviako mendietan abuztuan egin zuten espedizioari buruzko ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten, Zaldibian.

-3. Osinalde 22. bola txapelketa Patxi Arrondo zeraindarrak irabazi zuen, Andoni Berasategi idiazalbadarrekin kitarako luzea jokotuta. Herriko txapela Haritz Maizek jantzi zuen, neskena Naiara Peñagarikanok eta gazteena Joanes Agirrek.

-3. Irakule Txokoa egin zen, Katixa Agirrerren Atertu arte itxaron liburua-ekin.



Gorka Maiz Argia Egunean txapeldun Oñatin 2015-9-20



Arantzazu erromesaldia 2015-9-27

-7. Hondakinei buruz jarduteko bile-ra berezira deitu zituen udalak herritar-
rrak, iritzia eta ekarpenak emateko.

-7. Liztor beltzaren (Vespa velutina) habia bat kendu zuten suhiltzaileek, frontoi ondoko goiko kaletik. Udale-
rrian oso zabaldua zegoen jada espezie inbaditzaile kaltegarri hori.

-10. Aratz Igartzabal Bidegainek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan kantatu zuen, Arrasaten, final zortzi-
renetan.

-10. Gabiriako musikari eta dantzari-
ek Lurra taldearen 50. urteurreneko folklore jaialdian parte hartu zuten, Urretxun.

-12. Gabiriako idi pare batek Elo-
suko proban parte hartu zuen, Elorria-
ga itzainarekin, Ipiñarrietaren uztarria-
ren aurka.

-14. Noare-Etxeberriko Juani Laz-
kanok lehenengo aza lonbardak era-
man zituen Ordiziako azokara.

-15. Gabiriako I. Mendi Lasterketa 2016ko apirilaren 9an izango zela za-
baldu zen.

-17. Auto klasikoen Vasco-Navarro Rallya Gabiriatik pasatu zen.

-17. Baztarrikak lehen saria irabazi zuen Seu d'Urgellen (Lleida), Pirinioe-
tako Artisau Gaztaren Lehiaketan, gazta zaharraren atalean.

-17. Agerreberri etxean bizi zen Ana Martin Azkue hil zen, 36 urterekin, Meagan (Getaria).

-18. Eñaut Igartzabalek 38. egin zuen Urrakiko Igoera automobilismo proban.

-19. Gabiriako udal ordezkari batek hitzaldia egin zuen Zerainen, herriko hautagaitza formulari buruz.

-22. Amelia Jauregi Baztarrikako nekazariak hitzaldia egin zuen, Andoaingo Martin Ugalde Foroan.

-23. Iñaki Murua bertsolariak Adin Adin proiektuan kantatu zuen, Lazkaoko gerontologikoan, Gemma Urteagarekin. 30ean Beasaingo Arangoitin aritu ziren.

-23. Sandra Clivillek artilearen nazioarteko 16. biltzarrean parte hartu zuen, Felletin-en (Limousin, Frantzia).

-23. Gabiria Goieki garapen agenziazaren administrazio kontseiluko kide izatea erabaki zuten, batzar nagusian. Azaroaren 2an osatu zuten kontseilua.

-24. Baztarrikak eta Karmele Muruaren Ondarrek Euskal Herriko gazta txapelketan parte hartu zuten, 40 gazta onenen artean, Idiazabalen.

-24. Merkataritegi baserriko Modesta Gaztañaga Dorransoro hil zen, 98 urterekin.

-25. Hip Hip Urri ekimeneko ibilaldi kulturala egin zen, Igeribar Errota (errota), Eguzkitza (ferratokia), Errotaetxe (lixiba jotzea) eta Itzaitegin (sagardotegia) barrena.

-25. Gabiriar jatorriko bi korrikalarik irabazi zuten Ataungo Hiru Auzoetako 35. Korrikaldia: Juanjo Igartzabal Debak eta Maite Maiorak.

-29. Antolarrazpikoa baserrian bizi izandako Manuel Lozano Ibargoien hil zen, 65 urterekin, Beasainen.

-30. Murgil mendiko herri basoan, bertako zuhaitz mota autoktonoen informazio-oholak jarri zituen udalak. Artelatza (alcornoque) da espezie urriena eta bitxienetakoa.

-30. Hilerria berritzeko margoketa, txukunketa eta banku jartze lanak, eta kolunbarioak kokatzeko obrak bukatu zituen udalak.



Eñaut Igartzabal Urrakin-Eneritz Axpe



Sandra Cliville feltroaren Europako biltzarrean-S.Cliville

AZAROA

- 1. Uso pase ikusgarria izan zen Espainola mendi aldetik Aizkorriantze, eguraldi eguzkitsu, goxo eta haize pixka batekin.
- 1. Hilerriko kanpaitxoak jo zuten berriro, berriro eta gero, Santu Guztien eguneko arrosarioan.
- 1. Ohiturazko gaztaina jateak egin ziren, elkartetan.
- 2. Alex Aranburu Deba Murias taldeak fitxatu zuela zabaldu zen, 2016an profesionaletara jauzi egiteko.
- 2. Kontxi Simon ormaiztegiarraren margo-lanen erakusketa jarri zuten Ostatuan.
- 3. Gabiriako saneamendu proiektuko lanak gauzatzea onartu zuen Diputatuen Kontseiluak, Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.
- 6. Abiadura handiko trenaren Euskal Y eta Iruñea lotzeko Espainiako Gobernuak urratsak egin zituela zabaldu zen; lau aukeretako bat Ezkio-Itsason lotzea zen, Gabiriako lurretatik igarota.
- 6. Udal liburutegiko arduraduna lanean hasi zen. Kultura dinamizatzeke zereginak ere bazituen.
- 7. Jesus Mari Deba 3. saria lortu zuen Beasaingo Odolki Lehiaketan.
- 7. Guri5ek Urretxun jo zuen.
- 8. Loreto F. Imazek organo kontzertua egin zuen, Andre Mari elizan.
- 8. Bero handia egin zuen, 29 gradu inguru.
- 9. Arroaga baserrian jaiotako Luzia Urbiztondo Uria hil zen, 90 urterekin, Legazpin.
- 10. Gabiriako Rallyesprintaren zuzendari izandako Jose Maria del Cid Maykel hil zen, 65 urterekin, Gasteizen.
- 11. Iñigo Andolak Pioletak dantzan Pirinioetan ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen, Ormaiztegi Mendi Astean.
- 13. Joseba Iztuetak eta Alex Sukiak Ormaiztegi Mendi Astean eman zuten Boliviako mendi espedizioaren Ametsetatik gailurretara ikus-entzunezkoa.
- 13. Guri5ek Ataunen jo zuen, jaieran.
- 13. Igeribar Errotaren Eztanda erreka presaren berreraikitzeke lanak hasi zituzten.
- 14. I. Gabiriako Kopa txirindulari profesionalen eta zaleen arteko festa eta bazkia egin zen, Gabirian. Urteko Euskal Herriko probetako txirindulari onenak saritu, eta Txomin Perurena omendu zuten.
- 14. Balentzategi eskolakoek txangoa egin zuten Pasaia, Albaola itsas kultur faktoriara.
- 14. Bertsotruk helduen taldeen arteko desafio txapelketan Gabiriak parte hartuko zuela esan zuten, aurkezpenean, Agurainen.
- 16. Ur saneamendu sarea luzatzeke desjabetuko diren lurren eta ondasunen zerrenda atera zuten. Aunditegi Errota ingurutik Ormaiztegi Zubipera hodia sartuko dute, 1.587 metro luzean. Denera, 12 lur zati eta 144 metro koadro hartuko dituzte obrek; zortasuna 2.662 metro koadrokoa da, eta aldi baterako lur hartzea 10.232 metro koadrokoa.
- 18. Oñatibi-Txikiko Miren Agirrezabalak errezil sagarraren zukua eraman zuen, lehen aldiz, Ordiziako feriara.



Jesus Mari Deba odolkgilea-A.Maiz



Gabiria Kopan Txomin Perurena eta Joane Somarriba-A.Maiz

-20. Balentzategiko ikasleek antzerkia egin zuten, Ormaiztegi, Urretxu eta Abaltzisketako eskoletako kideentzat, elizako antzokian. 21ean herritarrentzat egin zuten.

-21. Auzolanean Ardantzako bidea garbitu zuten.

-20. Igeribar Errotaren presa egiten bukatu zuten.

-21. Guri5ek Ormaiztegin jo zuten, festetan.

-22. Errezil sagarraren 15. festa egin zen. Erreziletan sarituak (12 partaide): Xabier Arratibel, Pedro Iztueta, Maria Isabel Zumalakarregi. Sagar-goxotan irabazlea (15 partaide): Nekane Agirre Landetakoa. Goierri Beheko Ezti Lehiaketa (10 partaide): 1. Xabier Aseginolaza idiazabaldarra, 2. Mireia Telleria idiazabaldarra eta 3. Jesus Perez segurarra. Feria frontoian egin zen, euriagatik. 11 postu jarri zituzten.

-22. Goruntzek Ormaiztegin saioa egin zuten, jaietan.

-22. Lehenengo elurrak ikusi ziren Gabiriatik: Otañu (Zerain) eta Izazpi (Ezkio-ltsaso) zurututa.

-25. Jesus Mari Debak 5. egin zuten Gipuzkoako Odolki Txapelketan, Ordizian.

-27. Baztarrika gaztandegiak bi domina lortu zituen World Cheese Awards 2015 lehiaketan, Birminghamen (Ingalaterra): Idiazabal sormarkakoen artean brontzekoa, eta ardi esnez egindako gazta onduetan, zilarrezkoa.

-29. Jesus Mari Garmendiak irabazi zuten Ormaiztegi Odolki Txapelketa.

-30. Baztarrika gaztandegiak 2. saria jaso zuten Eibarren, San Andres feria bereziko gazta lehiaketan.

ABENDUA

-1. Irizar enpresa aparkalekua handitzeko lanak egiten hasi zen, Gabiriako lurretarantz.

-5. Guri5ek Markinan jo zuten.

-6. Oroitz Maiz zena omendu zuten Arrasaten, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako galan.

-6. Jon Muruak eta Isuo Sasiak Idia-zen zaintzari buruzko hamar estanpak diskoa aurkeztu zuten, Durangoko Azokan. Gauean hango gaztetxean kontzertua jo zuten.

-7. Aztiriko Mus Txapelketa Periko eta Aritz Agirre aita-emeek irabazi zuten, Iker Arratibel-Aratz Igartzabal bigarren. 24 bikote partaide.

-11. Igeribar Errotan berriz irina eho dute, ia urtebete geldirik egon ondoren martxan jarri zuten.

-11. Udalak Gabiri Agiri informazio buletinaren 5. zenbakia argitaratu zuten.

-12. Kotxearen oinarrizko mantimentuari buruzko ikastaroa egin zen, Isastegiko Julen Makazagarekin, Hartu-Eman Ikastaroetan.

-12. Luzio Gabiria zenaren omenez 28. bertso jaialdia egin zuten, Zumarragan. Laburu, Elustondo, Colina eta Beñat Gaztelumendi kantuan.

-13. Elizalde baserrian jaiotako Patxi Gabilondo Lasa hil zen, 88 urterekin, Ordizian.

-13. Urretxuko eta Zumarragako Santa Lutzi azokan, gabiriari nekazari-ek 7 sari jaso zituzten: barazkitan bat (Bekoetxe), frutatan hiru (Oñatibi Txikik 2, eta Bekoetxe), errezil sagarretan bi (Bekoetxe, Izar Aundi), eta zaldi aziendetan bat (Landeta).

-14. Udalaren 2016rako araudi fiskala behin betiko onartuta geratu zen.



Errezil sagar eguna-Aimar Maiz



Espainiako hauteskundeak-A.Maiz

- 16.** Noarezar baserrian bizi izandako Migel Mujika Tolosa Pittirri hil zen, 82 urterekin, Zumarragan.
- 16.** Gabiriako edo bertako jatorriko hiru harakinek parte hartu zuten Euskadiko 18. Txistor Txapelketan, Ordizian: Benito Debak, Segurako Ondarrek (4. saria) eta Javier Arratibelen ondorengoek.
- 19.** Goruntzek txistor jana egin zuen.
- 19.** Guri5ek Legorretan jo zuen.
- 20.** Gabiriako artisauek Zumarragako IV. Arte eta Artisau Ferian parte hartu zuten.
- 20.** Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin ziren. Kongresua: emandako botoak: 284; abstentzioa: 108 (%27,55), baliogabeak 3, zuria 1; EH Bilduk 123, EAJ 111, Podemos-Ahal Dugu 35, Unidad Popular en Comun (IU) 4, PSE-EE 3, PP 3, Ciudadanos 1. Senatua: emandako botoak: 284, baliogabeak 5, zuriak 4; Urko Aiertza (EH Bildu) 125, Maider Carrere (EH Bildu) 119, Pavel Viñas (EH Bildu) 115, M.Eugenia Iparragirre (EAJ) 111, Victoriano Gallastegi (EAJ) 105, Imanol Ke-rejeta (EAJ) 104, Josetxo Arrieta (Podemos) 32, Julen Bollain (Podemos) 20, Pilar Garrido (Podemos) 20...
- 20.** Jesus Mari Deba Euskal Gastronomia Elkarteko (Gastronomika) kofradiakide nagusi izendatu zuten, Donostian.
- 20.** Txindata musika eskolak Gabonetako kontzertua egin zuen, elizan.
- 20.** Udal liburutegian atzera utzitako liburuen salmenta egin zen, plazan postu bat jarrita.
- 20.** Olentzeroren etorrera ospatu zen, Simontxoene ondoko txabolan.
- 20.** Gaztaina erre jana egin zuen Guraso Elkarrekin, plazan.
- 21.** Kamioi batek su hartu zuen Gi-632 autobidean, matxuragatik. Kalte handirik ez zuen izan.
- 21.** Bekoetxek postu dotoreenaren saria jaso zuen Donostiako San Tomas ferian.
- 23.** Jauregi baserrian jaiotako Felipa Zabaleta Lekuona hil zen, 104 urterekin, Tolosan. Hura zen gabiriari adinekoena.
- 24.** Gabon eskean ibili ziren hiruzpalau talde.
- 26.** Gabiriari baserriarrek bi sari jaso zituzten Elgoibarko Gabon Zahar ferian, frutatan: Bekoetxek 3.a eta Oñatibi Txikik 4.a.
- 28.** Udalak herri batzarra egin zuen, 2016ko asmoak azaltzeko.
- 28.** Udalak sortzaile berezientzako (ostalaritza) hondakin bilketa berezia egiteko eskatu zuen, Sasieta Mankomunitatearen batzarrean.
- 29.** Auzolanean meategietako bi-dea garbitu zuten.
- 30.** Urretxuko Sortu dira besteak musika jaialdian herriko bi taldek parte hartu zuten: Ez Aurkeztuak, eta Isuo Sasiia-Jon Muruak.
- 30.** Guri5ek Berastegin jo zuen.
- 30.** Baztarrika gaztandegiak World Cheese Awards 2015 lehiaketako dominak jaso zituen, Ordiziako sari emate ekitaldian.
- 31.** Urtezahar arratsa eta gaua herrian bertan ospatu zuten gazteek.
- 31.** Urtea 13 langabetearekin bukatu zuen Gabiriak: 7 gizon eta 6 emakume. Industrian 4, zerbitzuetan 9.
- 31.** Udalaren erroldan 490 lagun, urtebete lehenago baino 7 gutxiago. 2015ean 6 jaiotza eta 3 heriotza izan ziren, kanpotik 5 etorri herrira, eta herri-rik 9 joan ziren kanpora.

Aimar Maiz Morea



Liburutegiko aleak saltzen-A.Maiz



Gaztaina jana-A.Maiz

AMETSETATIK GAILLU RRETARA



“Ametsetatik gailurretara” zioen kamiseta soinean genuela joan ginen Boliviara Alex eta biok 2015eko abuztuan, bertako mendi, kultura, jende eta tokiak ezagutzeko grinaz. Hasteko, mendia protagonista izango zuen programa bat diseinatu genuen eta hala abiatu ginen. Baina hara heldu ginean, beste Bolivia batek egin zigun ongietorria. Bolivia koloretsu, kultura zabaleko eta gertuko batek. Modu honetara gure programa aldatu genuen, mendia ezagutzeaz aparte benetako Bolivia ere ezagutu nahi genuelako.

Han pasatako 24 egunetan mendi asko ezagutu genituen: Huayna, Illimani, Condoriri... Baita bazter eta lagun asko ere. Hauetako bat David izan zen, David Mayta. Gure Huayna Potosiko igoeran ezagutu genuen. Oso gida prestua zen, indartsua eta denaren gainetik mendia maite zuen pertsona. Hainbat solasaldiren ondoren, lagun egin ginen eta La Paz-en bazkaltzeko ere gelditu ginen.

Bazkari ederra izan zen, geure mendiko pasarteak elkarri kontatuz eta etorkizuneko ametsi buruz hitz eginenez. Ameslariak baikara benetan mendizaleok, ez soilik mendiarekin, baita bizitzarekin ere.

Ametsetik ametsera, Bolivian zerbait teknikoa egiteko ideia atera zen. Hainbat mendiz hitz egin ondoren, Davidek aurrez ikusia zuen elur pareta baten inguruan hitz egin zidan. Mendiaren izenarekin ere ez zegoen ziur, Huarahuarani izena aipatu zuen. Altuerarik eta biderik jakin gabe amets horri heldu eta gailurrerako bideari ekin genion. Eguna eta ordua jarri eta agurtu genuen elkar, bakoitza bere etxera joateko. Gau luzea genuen aurretik...

Gaueko hamarretan geunden geldituta, gau ederra zen benetan. La Paz hiria ez zen lotara joan oraindik. Hiriaren gainaldera joan ginen eta bertatik inoiz ikusi dudana paisaia zoragarriena-tako bat ikusi nuen. Hiri guztia aurrez aurre. Sua baino gorriago zegoen La Paz.



Nekea nuen gorputzean, arratsaldean lorik egiterik ez bainuen izan. Gauean zetorrena buruan. Errepidea txarra bazen ere, lo hartu nuen.

Zer ote du, bada, niretzat mendiak? Bidean horixe etorri zen nire burura. Ordu haietan, gauerdian, egun hartan ezagututako bi boliviarekin nindoalarik, hotzak inguratzen gintuela, erantzun gisa hitz asko etorri ziren nire burura: superazioa, bakardadea, laguntasuna, ixiltasuna, konfidantza, abentura, arriskua, BIZIRIK SENTITZEA...

Hiru orduko bidaia izan zen. Hiru ordu mendi galdu horien artean. “Google” bezalako bilatzaile garrantzitsuek ezagutzen ez dituzten lurretan. Bakardadea eta hotza besterik bizi ez diren lurretan. Munduak ezagutzen ez dituen lurretan. Izenik ez duten lurretan.

Autoa izotz eta elurretan katiatu ondoren, hala esan zigun gidariak: “Bueno! Hasta aquí...”. Goizeko ordubatak ziren bazter galdu haietan. Mundu amaiera honetan ere denborak aurrera jarraitzen zuen. Gidaria agurtu eta elurretan gora jo genuen inolako GPS edota antzeko gailuren laguntzarik gabe.

Gau iluna zen.

Hotza zen nagusi, hotz handia. Bi ordu egin ondoren, paretaren hasieran geunden, iluntasunaren erdian. Ez nuen ikusten non geunden edota nora igo behar genuen. Sokatik lotu ginen David eta biok eta piolet eta kranpoien laguntzaz gora abiatu ginen. Segituan ginen izotz pareta batean. Torlojuak sartuz aseguratuta ginen. Igoera uste

baino luzeagoa eta gogorragoa izango zela konturatu nintzen, eta oraindik ez nekien non nengoan!

Orduak pasa ahala argitasuna bazetorren, eta hara! Han azaldu zen nire aurrean menditzar hura! Geldi-geldirik geratu nintzen. Ikusgarria! Lehen eguzki printzak iritsi zitzaizkidan, gorputzeko hotzak pixka bat goxatuz...

Beste inoren igoera arrastorik ez zegoen mendi hartan. Aurretik inork igo ote zuen pareta hau inoiz? Auskalo. Bide osoa aztertu beharra izan genuen igoerarik errazena bilatu nahian. Izotz gogorretik elur bigunera, elur gogorretik harri izoztura... Dena 50-70 graduko pareta batean. Teknikoa benetan. Altuerak ere gogor jotzen zuen, ia 6000





metrora baikeunden.

Eguzkia lanean ari zen, elurrak bi-guntzen ari ziren eta gu oraindik pa-retan zintzilik. Pareteko azken maldan sartu eta hara! 4-5 metroko kornisa bat gure aldera erortzeko mehatxuan, mendiaren alde batetik besteraino-koa. Momentu gogorra izan zen. Davidek aurrera egin zuen. Bere pioleta erabiliz kornisa hura zulatu zuen. 30-40 kiloko izotz puskak eroriko ziren. Ez zegoen gailurrera bidea egiteko beste modurik.

Gailurra! Hura poza! Azken sustotxo hark are eta gozoagoa egin zuen gailur lau hura. Gorputzean satisfazio izugarri bat eduki arren, nire buruko gailurra behean zegoen. Idatziz azaldu ezin den bista horiez gozatu eta argazki batzuk ateratzeko tarte hartu genuen. Denbora laburra izaten da mendi baten gailurrean pasatzen dena, baina ahazten ez diren momentuak dira halere...

Jaitsiera falta zitzaigun, ordea. Oraindik ez zen amaitu. Jaitsieran beste bide bat bilatu genuen. Zulo handiak zeuden izotz artean. Hauek saihestu eta behera jo genuen. Ordu asko izan ziren mendian egindakoak.

Aurreko gauean taxiak utzi gintuen toki berera iritsi ginen eta biok leher-tuta lurrean etzan ginen. Erreka txiki bat zetorren mendian behera, eta hura ukituz loak hartu nuen. Nekaturik nengo. Taxia gu iritsi eta bi ordura iritsi zen, boliviarren ohiko puntualitatearekin. Berandu etorriagatik ere, ez nengo haserre. Nire aurpegian bi sentimendu garbi antzeman zitezkeen: nekea eta satisfazioa.

Kotxera sartu eta egindako horretaz gogoeta egin nuen. Igoera gogorra izan

zen, altueran eta arriskutsua.

Nekatuta geunden David eta biok eta ez genuen elkarrizketarik izan kotxean pasa genituen hiru orduetan. Atzeko kristaletik mendiari begira pasa nituen kotxeko lehen 10 minutuak. Menditzar hura ezkutatu zenean, berriz, hauxe esan nion Davidi: "David, ha sido una locura, pero gracias". Barrutik irten zitzaidan esaldia izan zen. Irri txiki bat egin zidan eta loak hartu ninduen.

Joseba Iztueta Dorronsoro





2015-16 IKASTURTEAN ERE BIZIRIK

Ekainaren 14an Gipuzkoako Eskola Txikien festa denon artean prestatu eta ospatu ondoren oporrak hartu genituen. Eskerrik asko, berriro ere denoi, laguntzagatik.

Irailean, betiko legez, martxan hasi ginen, baina aldatetatxo batzuekin. Ikasle kopurua jaisten ari da eta horrek eragin du taldekatzea aldatzea:

Haur Hezkuntzako ikasleak goize-tako lehen orduak banatuta pasatzen dituzte: 2 eta 3 urteko bost, gela batean; eta, 4 eta 5eko beste bostak, bestean. Saio asko elkarrekin burutzen dituzte, gainera atea irekita egoten dira eta alde batera eta bestera ibiltzen dira. Arratsaldeetan, batzuk etxera joaten dira siesta egitera baina eskolan ere, eder askoa botatzen duenik, bada.

Lehen hezkuntzako ikasleak bi gela banatuak daude: hiru maila talde bakoitzean. Txikienak bederatzi, eta, handienak, hamazazpi. Aurten hamar joango dira eta hutsune galanta utziko dute. Baina bik eman dute izena eta aurrera jarraituko dugu, bizirik, ikasleak dauden bitartean.

Irakasle kopuruan ere antzematen da jaitsiera, baina errepikatzaile asko daudenez, lan batzuk errazago egiten dira.

Ganbaran tailerra deitzen dioguna antolatu dugu. Bertan, batez ere, han-

dien taldekoak aritzen dira eskulana eta esperimenduak egiten.

Proiektuak lantzen jarraitzen dugu eta lanak egin ahala, batez ere, hiruhilekoaren bukaera aldera, erakusketak jartzen ditugu atarian eta eskolako pasilloetan. Gonbidatuta zaude te ikustera! Eta zuetariko norbaitek guri zerbait erakutsi edo kontatu nahi badigu, gustura hartuko dugu gure artean. Berdin zaigu gaia, elkarrekin ikastea polita eta aberatsa da.

Gogoratzen al duzue Eskola Txikien Festa egunean umeen artean osatutako lorategia?

Bertan festako leloa landatu genuen: BIZIRIK. Eta bizirik igaro zuen uda, Andra Mariak, San Roke eguneko kontzertuak... jendeak benetan errespetuz hartu zuen. Udazkena ere loratu egin zuen eta negurako prestatu

behar genuenean lanpetuta harrapatu gintuen. Baina lur azalean landaririk ikusi ez arren, neguko lekukoa animalia bategi hartu du. Guk ez dugu ikusi, berak ez gaitu ikusi, baina batetik bestera dabilela da nabari, lur mordoskak harrotuta baitaude. Ez dago lo satorra, bizirik nahi du ikusi guk utzitako lurra. Ea lan hau argitaratzen denerako kolorez jantzen dugun, umeek herria alaitasunez jantzen duten modura.

Eta orain, gure berri eta ikasten duguna zuek dakizuen probatu nahi baduzue jolasa proposatzen dizuegu. Haur Hezkuntzakoek prestatu ziguten eta oso gustura parte hartu genuen denok atsedean batean: GABIRI PASA. Animatu, ea zenbat puntu egiten dituzuen! Eta erantzunik ez badakizu GABIRI PASA esan eta jokalaria txandatu. Bukaeran izango dituzue erantzunik.



Gipuzkoako Eskola Txikien festa egunean leloa landarez alaitzen.

GABIRI PASA LH

- A** – Zein ikasleren amak egiten du korrika?
- B** – Eskolako bi ikasleren baserrian gazta egiten da, zein da bere izena?
- C** – Ingelesez 4 hanketan ibiltzen den animalia.
- D** – “Atxis” (keinua egin) euskeraz.
- E** – Abenduaren 3an zein egun ospatzen da?.
- F** – “Lodi”ren antonimoa.
- G** – Interneteko bilatzaile famatuena?
- H** – Eskolako zein ikaslek betetzen ditu urteak urtarrilean?
- I** – Zein da eskolan ospatuko dugun eta “i”- rekin hasten den hurrengo festa?
- J** – Nola esaten da ingelesez urtearen 6.hilabetea?.
- K** – Jaietan kalerik kale musika joaz egiten den ibilaldia.
- L** – Nola deitzen zaio lo asko egiten duenari.
- M** – Pixa gordetzen den poltsaren izena.
- N** – Gustuko ez dugun zerbaitek sorrarazten diguna.
- O** – Kolorinetako zubiaren izena.
- P** – Euskal Herriko zaldi txikia.
- Q** – 4 gurpil dituen garraio bat.
- R** – “R”a daukan eta ondo ezagutzen duzuen Europako hiria
- S** – Antonimoaren kontrakoa.
- T** – Eguberrietan jaten dugun gozoa
- U** – Nondik ateratzen da kaka?
- V** – Gondolak famatuak diren hiria.
- W** – Uretan egiten zen kirola..
- X** – Euri gutxi egiten duenean ematen zaion izena.
- Y** – Ingelesez “atzo”.
- Z** – Izarrak, hodeiak, ilargia, eguzkia... daude bertan.

Erantzunak: **AXULAR ETA AXLOR, BAZTARRIKA, CAT edo COW, DOMINIS-
TIKU, EUSKARAREN EGUNA, FIN(A), GOOGLE, HELENE, IHAUTERIAK, JUNE,
KALEJIRA, LOTI, MASKURIA, NAZKA, OSTADARRA, POTTOKA, QUAD-A,
ERROMA, SINONIMOA, TURROIA, UZKIA, VENEZIA, WINDSURF EDO WATER-
POLO, XIRI MIRI, YESTERDAY, ZERUA.**



GABIRI PASA HH

- A** – Zeintzuk dira gehien maite gaituzten pertsonak?
- B** – Gorputzeko zein ataletatik entzuten dugu?.
- C** – Gaztelaniaz, nola deitzen da burua eta sorbalda lotzen dituen gorputzeko zatia?
- D** – Zein animalia erraldoi ez dira existitzen gaur egun?
- E** – Zein da andereño baten izena?
- F** – Gorputzeko hezurrik handiena / luzeena?
- G** – Zein da munduko herririk politena?
- H** – “kaixo” Ingelesez.
- I** – Zein da handien andereño bat?
- J** – Zer da lagunekin gehien gustatzen zaizuna egitea?
- K** – Ipurditik kanporatzen duguna.
- L** – Oso nekatuta gaudenean ohen egiten duguna.
- M** – Bi gurpiletan ibiltzen den garraioa.
- N** – Zein da hemendik gutxira umea izan behar duen andereñoa?
- O** – Mantala etxera eramaten dugun eguna.
- P** – Zer aurkitzen dugu Egipton triangelu formarekin?
- Q** – Gazta gazteleraz.
- R** – “R” daukan eta sagutxoaren antza daukan animalia txiki baten izena.
- S** – Zein da egunero flautak ekartzen dizkigun andrea-
ren izena?
- T** – Egiptoko faraoi ezagun baten izena.
- U** – Sudurrekin antzematen den zentzumena.
- V** – Ostirala gaztelaniaz.
- W** – Ogitartekoa, bereziki binboarekin egitena dena.
- X** – Tripan daukagun zulotxoa.
- Y** – Kolore bat ingelesez (edo kolore horia, ingelesez, nola esaten da?)
- Z** – San Ferminetako animalia.

Erantzunak: **AMA ETA AITA, BELARRIA, CUELLO, DINOSAUROAK,
ELENA, FEMURRA, GABIRIA, HELLO, IRANTZU, JOLASTU, KAKA,
LO, MOTOA, NAIARA, OSTIRALA, PIRAMIDEA, QUESO, ARRATOIA,
SORKUNDE, TUTANKAMON, USAIMENA, VIERNES, SANDWICH, TXIL-
BORRA. YELLOW, ZEZENA**

LEGOAK

LEGOTAN JOLASTEA ASKO GUSTATZEN ZAIGU.

JOAN DEN IKASTURTEAN LEGOAREKIN PELIKULA EGITEA BURURATU ZITZAIGUN ETA EGIN GENUEN: "ZAZPI ABENTURAZALEAK 3D"

ISTORIO BAT ASMATU GENUEN. ESZENATAN BANATU ETA KONTATU BEHAR GENUENA LEGOAREKIN OSATU GENUEN.

TALDE BAKOITZAK EGOERA BAT OSATU ZUEN.

ONDOREN ARGAZKIAK ATERA GENUEN, BATZUK OROKORRAK ETA BESTE BATZUK DETAILA GEHIAGOREKIN. ETA GERO ARGAZKIAK ORDENEAN JARRI GENUEN.

IRUDIAK IKUSIZ, ISTORIOAREN ZATI BAT IRAKURRI ZUEN BAKOITZAK PAREAN EGOTEKO. ETA BUKAERAN MUSIKA JARRI ETA DENAK ELKARTU GENUEN. AZKEN EGUNEAN ESKOLAN IKUSI GENUEN.

ONDOREN, IRUDI ETA ISTORIO BERAREKIN IPUINA OSATU GENUEN: "ZAZPIAK ZINEMAN"

AURTEN BESTE LAN BATZUK EGIN DITUGU: ETXEAK, GARAJEAK, KOTXEAK, FUTBOL ZELAIA, SASKI BALOI PISTA... TALDEKA EDO BANAKA OSATU, GELAN ERAKUTSI, ZER EGIN DUGUN ESPLIKATU ETA JASO EGIN DITUGU.



Hemen etxea egiten ari gara.



Hemen lanen erakusketa bat.

JAIONE SASIETARI BURUZ

Eskola

EGUN BATEAN JAIONE SASIETA ETORRI ZEN GURI LASTERKETEI BURUZ HITZ EGITERA ETA ARGAZKIAK ERAKUSTERA. ASKO IKASI GENUEN BERE KONTAKETAREKIN. GEHIEN BAT LASTERKETAK EZ DIRELA KORRIKA EGITEA BAKARRIK, LEKU ETA JENDE ASKO EZAGUTZEN DUZULA.

BAINA MENDI LASTERKETETAN BAINO LEHEN MENDI BIZIKLETA LASTERKETETAN IBILTZEN ZEN.

MENDI BIZIKLETAN EUSKAL HERRIAN KARRERA UGARITAN PARTE HARTU ZUEN. EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA BI ALDIZ IRABAZI ZUEN. ESPAINIAKO TXAPELKETAN 3. EGIN ZUEN CANDANCHUN IZAN ZEN LASTERKETAN.

EUSKAL HERRIKO SELEKZIOAREKIN TALDEKAKO LASTERKETAN 2. POSTUA LORTU ZUTEN ESPAINIAKO LASTERKETAN.

LASTERKETA BATEAN BIZIKLETATIK ERORI ETA LESIO NAHIKO HANDIA IZAN ZUEN, AURPEGIAN PUNTU UGARI EMAN ZIZKIOTEN ETA SUDURRA HAUTSI...

ORAINDIK JARRAITZEN DU MENDIAN BIZIKLETAN, BAINA EZ DA IBILTZEN LASTERKETETAN.

ONDOREN MENDI LASTERKETETAN HASI ZEN, BATEZ ERE, AIZKORRIKO MARATOIAN PARTE HARTU NAHI ZUELAKO. HAU PRESTATZEKO LASTERKETA UGARITAN PARTE HARTU ZUEN.

ZEGAMA- AIZKORRIN PARTE HARTU ZUEN SEI EDIZIOTAN, POSTURIK ONENAK 6. ETA 8. EGIN ZITUEN.

EUSKAL HERRIKO LASTERKETA UGARITAN PARTE HARTU ZUEN: BERAN, OÑATIN, SARAN, ISABAN...

ONDOREN LASTERKETA LUZEAGOETAN HASI ZEN, BATEZ ERE ULTRA TRAIL MONT BLANC OSPETSUA KORRITU NAHI ZUELAKO, LASTERKETA HORRETAN MUNDU OSOKO JENDEAK PARTE HARTZEN DU.

HORRETARAKO LASTERKETA BATZUETAN PUNTUAK LORTU BEHAR DIRA. GORKA ANAIAREKIN BATERA LASTERKETA LUZE UGARI EGIN ZITUEN. HORRETARAKO, LASTERKETAK EZ DIREN MENDI IBILALDI BEREZI BATZUK ERE EGIN ZITUEN ATERPETXEETATIK PASATUZ, DENBORA MUGA BATEAN IBILADI BAT EGINEZ, BERTAN LEKU ETA PAISAIA UGARI EZAGUTUZ.

MONT BLAC ULTRAN BI ALDIZ EGON ZEN, BATEN AMAITZEA LORTU ZUEN, BESTEAN ERORKETA BATEGATIK ERRETIRATU EGIN BEHAR IZAN ZUEN.

JAIONE SASIETAK NABARMENTZEKO MODUKO PARTAIDETZA DU EHUNMILIETAN, SEITIK BOSTETAN PODIUMERA IGOTZEA LORTU BAITU KORRIKALARI ITSASOARRAK.. TXAPELDUNORDE BI ALDIZ IZAN DA (2010EAN ETA 2013AN), ETA HIRUGARREN BESTE BITAN (2011N ETA 2012AN). PODIUMERA IGO EZ DEN ORAIN ARTEKO ALDI BAKARREAN, IAZ, LAUGARREN EGIN ZUEN EMAKUMEZKOETAN.

AZKEN EHUNMILA PROBAN GORENEKO MAILAN ARITU ZEN. NESKETAN IRABAZI EGIN ZUEN. GOIZEKO 2:27AN HELMUGARATU ZEN. DENERA 32:27:54 ORDUKO DENBORA OSATU ZUEN.

LEHENGO URTEAN EHUN MILATAKO AZKEN KILOMETROAK YIANCHANCHUN IZENENKO JAPONIAR BATEKIN EGIN ZITUEN.

2015 URTEAN ULTRA TRAIL ANDORRAN 4.ZIHOAN BAINA ERRETIRATU EGIN ZEN HANKETAKO MINEZ...

ASTURIASEN PICOS DE EUROPA MENDIKATEAN TRABESERA IZENENKO LASTERKETA BATERA JOAN ZEN ETA 3. EGIN ZUEN.

ETA OHAR BAT EMAN ZIGUN: BETI MOBILA, LINTERNA, URA, JANARI PIXKA BAT ETA ARROPA ERAMATEKO.

KORRIKALARI BIKAINA DAUKAGU ETXEAN!!!!!!



Jaione Sasieta ikasleei hitzaldia eskaintzen



Hemen anaia Gorkarekin dago lasterketa hasi baino lehen. Berarekin egin zituen Jaionek lehenengo lasterketak. Geroxeago Gorkak utzi egin zuen lehiaketa maila.





Menua aukeratzeko ari gara hor



Paretetan janari motak eta aholkuak daude.



Janariak kontserbatzeko moduak ere agertzen dira.

D'ELIKATUZ BISITATZEN

IKASTURTE HONETAKO I.HIRUHILEKOAN GORPUTZA LAN-
DU GENUEN, ETA ELIKADURAZ GEHIAGO JAKITEKO ORDIZIAKO
D'ELIKATUZERA JOAN GINEN LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK.

ESPLIKAZIOAK JASO ONDOREN TXOKO DESBERDINAK EZAGUTU
GENITUEN.

MENUA AUKERATU ONDOREN LABE ANTZEKO BATEAN SAR-
TU ETA JANARIA EGOKIA ZEN EDO TXARRA ZEN ESATEN
ZUEN ORDENAGAILU ANTZEKO BATEK. OSASUNERAKO EGOKIA EZ
BAZEN, BESTE PLATER BAT AUKERATZEN GENUEN.

JANARIAREN PIRAMIDEA IKUSI GENUEN. ZATI DESBERDINAK
ZITUEN:

BEHEKOAN OGIAK, FIDEOAK, ARROZA, PATATAK, HIRINA, ZE-
REALAK, SAGARRAK, PLATANOAK, LARANJAK, MARRUBIAK, GE-
REZIAK, MELOIAK, AZENARIOAK, AZA,

AZALOREAK, ETA ESNEA ETA ESNEKIAK ZEUDEN. HAUEK EGU-
NERO JAN BEHAR DIRA.

BIGARRENEKOAK ASTERO JAN BEHAR DIRA. PISU HONETAN
FRUITU LEHORRAK, ARRAINA, HARAGIA, ARRAUTZAK, EGOSKA-
RIAK ETA FRUITU LEHORRAK ZEUDEN EGUNEAN BI ANOA JAN
BEHAR DIRA. BAKOITZAK BEHAR DITUEN ENERGIA PREMIAK
ASETZEKO.

NOIZEAN BEHIN JAN BEHARREKOAK HAUEK DIRA: HESTEBETE
ETA HARAGI KOIPETSUAK, GANTZAK (GURINA, MARGARINA), LI-
TXARKERIAK, PASTELAK, OPILAK ...

GOMENDIO HORIEK GUZTIAK ARAZO GEHIEGIRIK GABE BETE
DITZAKEGU.

ELIKADURAREN PIRAMIDEARI JARRAITUZ GERO, EGUNERO 4-5
JANALDI EGIN DEHAR DIRA: GOSARIA, HAMAIKETAKOIA, BAZKA-
RIA, ASKARIA ETA AFARIA. ELIKADURA MULTZO GUZTIAK BAR-
NERATU BEHAR DIRA.

GARAIAN GARAIKO JANARIAK DAGOKIEN NEURRIAN JATEA DA
EGOKIENA.

TXAIAREKIN TARTAK APAINTZEN

Eskola

MATERIALAK: BOLATXOAK, RODOLOAK, FONDANA, FORMAK, URA, IRINA ETA PINTZELA.



TXAIAK 3 TARTA EKARRI ZITUEN ETXETIK. BARRUAN BIZKOTXOA ZEUKATEN ETA KANPOAN FONDANA. FONDANAK PLASTILINAZ EGINDA DAGOELA EMATEN DU. GELA BAKOITZAK TARTA BAT APAINDU ZUEN.



BI TARTA BORROBILAK ZIREN, ZILINDRO MOTZAK, ETA BAT KARRATU LUZEA. TARTA BOROBIL BAT TXURIA ZEN ETA BESTEA ARROSA. BESTE TARTA URDINA ZEN ETA BERE FORMA PRISMA DA.

BAKOITZAK NAHI ZUEN FONDANA HARTU, IRIN PIXKA BAT BOTA MAHAI GAINEAN ETA ZABALDU GENUEN.

MOLDEN AZPIAN FONDANA JARRI, GERO MOLDEA ZAPALDU, BATZUK OSATU: BE-GIAK JARRI, SUDURRA, BOTOIAK... ETA TARTAREN BUELTAN JARRI GENITUEN.

AZKENIK... TALDE BAKOITZAK BERAK EGINDAKOA JAN ZUEN.



SASIETA MANKOMUNITATEKOAK ESKOLAN

Abenduan egon ziren eskolan Sasietako Mankomunitatekoak hainbat jarraibide eta aholku ematen birziklatzeari buruz.

Kontsumo arduratsu batentzat aurrena hiru pausu oso inportante aipatu zizkiguten, kontuan hartu behar ditugunak beti:

1.MURRIZTU: saiatu ontzi familiarak erosten, fruta eta barazkiak soltean erosi, brik motako ontzien erabilera saihestu...

2.BERRERABILI: ahal den neurrian gauzei beste funtzio bat eman edota aparailu zaharrak konpondu...

3. BIRZIKLATU: gaur egun gauza bakoitzarentzat ontzi berezia dugula probestuz.

Inguruko herrietako birziklatze maila erakutsi zigutenean Gabirian asko hobetu behar dugula ohartu ginen, nahiz eta bidean egon. Jakin badakizue herriko plazan, eta baita futbol zelaian ere, zaborrak sailkatzeko lau ontzi koloretakoak ditugula, eta berdin frontoian, lehen bidoi bat zegoen zakarrontzi bezala eta oso zikina zegoen, orain, berriz, zakarrontzi berrietan ontzi arinak, papera, organikoa eta errefusa jarri dute eta frontoia lehen baino askoz garbiagoa dago. Ziur gaude birziklatze maila hobea lortuko dugula. Animo!!!

Hainbat gauza ikasi dugu Sasietako Mankomunitatekoek esker, adibidez:

Plastiko ontzia deitu ordez hobe dela ontzi arinak deitzea, bertan ez baitira plastikoak bakarrik botatzen, baita latak, poliespanezko bandejak, laranjen sareak, break ontziak, spray poteak... ere.

Hainbat lekutan, eskolan adibidez, tapoiak jasotzen ditugu helburu ezberdinetarako, jakin ezazue, tapoi horiekin batera edozein tapa bota dezakegula.

Urdinean papera, kartoia eta askotan kezka sortzen diren arrautza ontziak ere botatzen dira.

Berdean beirazko ontziak botatzen dira, eta ez kristala. Egokia zein den jakiteko truku bat erakutsi ziguten: beteta erosi baduzu, beira izango da, eta bestela, kristala; hau da, koparen bat edo plateren bat bada, orduan errefusara.

Organikoa etxeko konpostan bota behar da. Gaur egun etxe gehienetan aukera hori badago, eta izugarrizko mesedea egiten dugu ingurumenean ongarria lortzen baita. Ekonomikoki ere merkeagoa da.



Olioaren edukiontzian olio plastiko botilatan edo break ontzietan bota behar da, eta ez beirazko ontzietan. Bestela beira puskatu daitekeelako.

Pilak ontzi arrosara bota behar dira eta



ez errefusara asko kutsatzen dute eta. Berriz kargatzen diren pilak erostea, ardura-tsuagoa da, energia eta errekurso gutxiago gastatzeko.

Arropa zaharrak badituzue, aurrena saiatu berrerabiltzen: beste norbaiti pasa, zapietarako, eskulanetarako.... eta ez badizue ezertako balio, bota zakarrontzi txurira.

Gauza elektronikokoak edo tamaina handiko tresnak, altzariak, e.a. edota ontziaren azalean arriskuaren ikurra dutenak, garbigunean utzi behar dira.

Konpostaiaren inguruko datuak:

	Biztanleria	Etxeko Konpostaia	Auzokoa
Ezkio-ltsaso	602	85	60
Gabiria	496	97	0

Eta hemen konpostaiaren inguruan egin ditugun hainbat galderen erantzunak:

Ez dut berdegunerik, konposta egin dezaket?

Konpostagailua zuzenean lurzoru natu-



ralarekin kontaktuan egotea beharrezkoa da, lurzoru mikróorganismoak konpostagailura irits daitezten eta uraren drainatzea errazteko. Berdegunerik ez duten eta konposta egin nahi duten herritarrek, lurzoru publikoetan kokatzen diren lorategi publikoetan egin dezakete konposta.

Beharrezkoa al da konpostagailua konposta egiteko?

Ez. Betidanik egin izan da konposta piloan. Hala ere konpostagailuak, kon-

posta prozesuko baldintzak egokiak izan daitezten laguntzen du (euritik, haizetik, hotzetik eta eguzkitik babestuz). Gainera estetikoki ere zaindua da.

Baratza bat daukat, baina ez daukat etxean bertan, konpostagailu bat lor dezaket?

Bai, baina ez da erosoena. Konposta prozesua egoki joateko beharrezkoa da hondakinak modu erregularrean botatzea.

Mota guztietako hondakin organikoak konpostatu ditzaket?

Bai. Badaude hondakin mota batzuk, zitrikoak, haragia eta arrai jatorrikoak esaterako, konpostatzeko zailagoak direnak, baina konpostatzen hasi eta hilabetera, prozesua aktibo egongo da eta konpostatu ditzakegu oinarritzko mantentze aholkuak jarraituz.

Konpostaiak usain txarrak sortzen al ditu?

Ez. Ustel edo amoniako usaia antzematen baduzue, konposta hezeegia edo aireztapen falta duelako izango da. Hau konpontzeko nahikoa da nahasketa iraultzea eta materia lehorra gehitzea.

Konpostaiak intsektu edo eulirik erakartzen al du?

Intsektuak konpostaje prozesuko parte dira, beraz, beti agertuko dira konpostagailu barruan. Gainera, ez dira konpostagailutik ateratzen, bertan bizitzeko tenperatura eta hezetasun baldintza egokiak aurkitzen baitituzte.

Nola dakigu konposta heldua dagoela?

Konposta heldua dagoenean, giro tenperatura izan behar du eta itxura uniformea. Bota ditugun hondakinak desberdintzeko ez dugu gai izan behar, bota ditugun ondar gogorak kenduta:



adarrak,
hezurrak, marisko oskolak,

Gogoratu, ahaleginak merezi du.
Hondakinak guztion ardura dira!



Yolanda Arrietarekin idazle bihurtzen



Yolanda Arrieta ipuinak idazten dituen emakumea da. Bizkaian jaio zen, baina gaur egun Usurbilen bizi da. Berak ipuinak eta olerkiak idazten ditu.

Aste honetan Gabirian, Larraulen eta Olaberrian egon da. Hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoei eman die klasea. Egunero ordu bat. Bost egunetan hauxe egin dugu: istorio bat asmatzeko nor, non, noiz, zer eta nola atalen lanketa.

Astelehenean NOR lantzeko orri laranja eman zigun. Musika entzunez marrazki bat egin genuen arkatza altxatu gabe. Ondoren, marrazkiaren esanahia hitzez azaldu.

Asteartean orri horian NON landu genuen. Berririo musika jarri zigun. Ezkutaleku bat irudikatu genuen lekua esan gabe eta bertatik ikusi, entzun, usaindu, ukitu eta dastatu zitekeena pentsa. Ondoren etxeko txoko kuttun bati buruz idatzi genuen.

Asteazkenean orri zurian NOIZ lantzeko gauzak zehaztu genituen zentzumenak erabiliz. Garai batean gertatutakoak eta oraindik gertatu ez dena amestu irudimena erabiliz. Adibidez, zer izango naiz 18 urte ditudanean.

Ostegunean orri arrosan ZER lantzeko Maria Gona Gorriaren etxetxoa egin genuen formula ezagunak kopiatuz, eta kanta bati letra jarri behar genion, jakinda aita batek 2 urteko alabari egindakoa zela.

Ostiralean orri berdean NOLA landu genuen. Musika jarri zuen burua ez nahasteko, eta formula batzuekin ipuin osoa osatu behar genuen.

Bost egun horietan musika desberdina jarri zuen. Yolanda lasaitasuna behar du ipuina edo olerkia idazteko. Lasaitasunaren bidez lana egiten du. Berarentzat dena da posible.

Y

Yolanda Arrietak gaztetatik idazten ditu ipuinak. Berak liburu hauek ekarri zituen eta eskaintza hauek idatzi zizkigun: "Amaren urteak": Gabiriko laguntxoei bihotzez; "Zazpi pertsonaia istorio bila": Gabiriako irakurle gaztetxoi, atseginez; eta "Groau!": Gabiriko laguntxoei katu kontu hauek, atseginez.



Yolanda Arrietak oparitutako liburuak.

Oso gustura egon gara berarekin, ea idazle onak izaten garen.



Eskola



“Huesitos”
gure gelan egon da

EMANALDIRAKO OSPITALEA



LEHENENGO IRU LÉKOO METAN
GORPUTZARI BURUZ IKASI DUGU.
ADARASO LANUIGU.
EMEN IDORFI AUE.

- LEHENENGO HIRUHILEKO HONETAN GORPUTZARI BURUZ IKASI DUGU.
- GAUZA ASKO LANBU DITUGU
- HEHEN HUESITOSEKIN GAUDE.)

ANTZERRIKO OSPITALE BAT EBIN
(ANTZERRIKO OSPITALE BAT EBIN)
GENUEN
UAI XONAZARI KEETA AUE OA
(GU GAIXOAK IZAN GINEN ETA ANDERLORAK)
MEI PAZIEM.
(MEI PAZIEM)
- OOOOAAUEUEEAA
(OSO ONDO PASATU GENUEN BANTZA)
(OSO ONDO PASATU GENUEN BANTZA)



- EDAAAI EPADNEAO
(ESKOLA APAINZEIKO GABONETAKO)
VAIEEYA EUEUE
(ZUHATZ BEREZ BAT EGIN GENUEN)
ORREAOUEI BIAEAKSOAO NEE
(HURKETAKO GUAE FAMILIA ETA ESKOLAKO LANGILEEN)
ARAZAKAIEUE.
(ARGAZKIAK ERABILI GENUEN.)

ARGAZKIEN JOLASA

1- Non geundeke iturri honetatik ura edango bagenu?



2- Zein da baserri honen izena?



3- Herriguneko zein etxetara sartuko ginateke ate honetatik?



Asmatzen dutenen artean herriko ostatuan bi lagunentzako afari bat zozketatuko da. Erantzunak Uztailaren 31 baino lehen udal.batzordeak@gmail.com era bidali.

Gorka Maiz Alustiza

MAKIILA KIXKI

Gabiriako jakituriaren testa 2016

1. Gabiriako I. Mendi Lasterketa-ri Leharrei izena jarri diote. Baina, nondik dator?

- a) Learregi parajeen gora bukatuko delako.
- b) Aldapan gora, leher egiteko moduko ibilbidea duelako.
- c) Lehen ere mendi lasterketa larregi badaudelako bazterretan.

2. Aurretik ere gabiriar jatorriko diputatuak izan dira Gipuzkoako Foru Aldundian (Jose Joaquin Aztiria, Jose Julian Irizar...), baina iaz Ainhoa Aizpuru Murua (Elizalde, 1970) izendatu zuten. Zer departamenturen buru da?

- a) Ogasuna eta Finantzak.
- b) Mugikortasuna eta Lurralde Antolamendua.
- c) Sustapen Ekonomikoa, Landa Garapena eta Lurralde Orekoa.

3. Ekainaren 5ean zerk edo nork beteko ditu 50 urte?

- a) Aizaleku gailurreko gurutzeak.
- b) Ur depositu zaharrak.
- c) Ardantzako ehizarako parape-toak.

4. Eta zer zegoen Aizalekuren gailurrean, lehenago?

- a) Pasiotarren ikastetxekoek eraikitako harrizko pila handi bat.
- b) Segura Irratiaren antena-errepikagailua.
- c) Erdi Aroan jarritako harrizko gurutze baten oinarria eta aztarnak.

5. Gabiriak Goierri mailan badu tasa baxuenetako bat (2. gutxi-nekoa, hain zuzen). Zertan?

- a) Euskaraz ez dakiten hiztunetan.
- b) Birzikla ezin daitekeen errefus hondakinetan.
- c) Langabezian.

6. Bertako landare mota autoktonoen Murgilgo herri baso babestuan bada oso sarria ez den espezie bat.

- A) Hagina.
- b) Gorostia.
- c) Artelatza.

7. Iñaki Etxezarreta Egiguren da alkate 2015eko ekainaren 13tik. Zein zerrendatan aurkeztu zen?

- a) Gabiria Aurrera.
- b) GHE Gabiria Hautesle Elkarte.
- c) Auzo Artea.

8. Aizaleku mendiaren magalean aspalditik izan zen produkzio gune bat. Zerena?

- a) 1950ean intsinis pinua zabaltzen hasi zenean, landare mintegia.
- b) Eraikuntzarako eta trenbiderako harria ateratzeko harrobia.
- c) Inguruotako zizaleku onena zegoen.

9. 1610ean, Martin de Aranburu gabiriarrak eta Domingo de Tejeria itsasoarrak negozio bat jarri zuten Getarian. Zertara dedikatzen?

- a) Piratek erasotutako arrantzaleei eta itsas merkatariari seguruak egiteko.
- b) Arraina eskabetxean kontserbatu, eta Gasteizen saltzeko.
- c) Kizkitza eta Murgil aldeko haritzak eta pagoak kostaldeko ontziolari saltzeko, bergantzinak eraikitzeko.

10. Gaur egun, udalerriz gaindiko honako zein erakundetan da aginte organoko kide Gabiriako Udala?

- a) Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko zuzendaritzakoa.
- b) Goieki garapen agentziako Adminisrazio Kontseilukoa.
- c) Tolosako hiltegi mankomunatu-ko lehendakaritza batzordekoa.

11. Duela 83 urte ere, 1933ko otsailaren 12an, beste erakunde baten sorrerako kideetako bat izan zen Gabiria. Zeinena?

- a) ENB Euzko Nekazarien Bazkuna sindikatuarena.
- b) Euskal Estatutua lantzeko udalerrien arteko batzordearena.
- c) Errepublikaren baloreak zabalteko Diputazioak sortu zuen elkar-tearena.

12. Orain elizak apaizez hornitzea zail bihurtu bada ere, 1802an zenbat zeuden Andre Mari elizan?

- a) Erretore bat, laguntzaile bat eta serora bat.
- b) Erretore bat eta sei benfiziatu.
- c) Lau erretore.

13. Zeinek irakurri zuen festen hasierako pregoia, iazko abuztuaren 13an?

- a) Aztiri-Bat elkartekoek.
- b) Guri5 musika taldekoek.
- c) Makilari guraso elkartekoek.

14. Amurrion Carmen Perez de Albeniz Aranburu gabiriarra omendu zuten iaz. Zer dela eta?

- a) Amurrioko merkatari elkartearen lehendakari 40 urte lan egiteagatik.
- b) Araban euskararen aldeko lana egiteagatik.
- c) Bizitza osoa artzaintzari eskaini izanagatik.

15. Zerekin lotuta egon daiteke Aztiriko ermita Santa Marinaren gurtzakoa izatea?

- a) Itsasontzietarako egurra ateratzen zelako ("marina" adjektiboa hortik).
- b) Done Jakue bidea hortik igaro izanarekin, antzina.
- c) Armada Garaiezinako marinelek diruz lagunduta eraiki zutelako.

16. Korta jatetxeak zeren omezez dauka izen hori?

- a) Aizkolari edo egur ebakitzaile ospetsua bizi izan zelako han XIX. mendean.
- b) Ikorta paraje zoragarriaren barrenean dagoelako, eta egunaren azken eguzki printzak hura argitzen duelako jatetxetik.
- c) Zuazola Azpikoa baserri hartan bizi izan zen Jesus Soralezegatik, Azkoitiko Korta baserrian jaioa.

17. Gabiriaren auzo diren Ezkio eta Itsaso banatzen direnean, gure udalerrriak zenbat herrirekin egingo du muga?

- a) Bostekin.
- b) Seirekin.
- c) Zazpirekin.

18. Maite Maiora, Alex Aranburu, Juanjo Igartzabal. Goi mailako kirolariak dira. Baina zerk batzen ditu?

- a) Guraso bat gabiriarra dutela.
- b) Gabirian lasterketaren bat irabaziak direla, norbere kirolean.
- c) Bigarren abizena Gabiria dutela hirurek.

19. Zer da Gabiria Kopa?

- a) Txirrinduzaleen festa bat, ziklista profesional onenak saritzeko sortua.
- b) Ostatuko Juanluk asmatu zuen koktel leherkorra.
- c) Andre Mari jaietan iaz egin zen lehen musu emate txapelketa, Gabiriako Pa Lehiaketaren laburdura.

20. Gaur egun Ostatuan dagoen baskula, 1936ko irailera arte Sindikatoan egon zen. Zein urtetan ekarri zuten nekazaritza gaien saltoki hartara?

- a) 1848an.
- b) 1900ean.
- c) 1935ean.

Aimar Maiz Morea



Emaitzak

20-c	15-b	10-b	5-c
19-a	14-c	9-b	4-a
18-a	13-c	8-b	3-a
17-b	12-b	7-b	2-c
16-c	11-a	6-c	1-a

ARGAZKI ZAHARRA



GABIRIAKO GAZTE TALDEA ARANTZAZUN 1935.URTE INGURUAN.

Goiko ilaran erdialdean txapelarekin ageri dena: Eugenio Azarola (Mandiola).

Bigarren ilaran ezkerretik eskuinera: Xerafin Irrarrazabal (Zuazolagarakoa), Ramon Igarzabal (Merkategi), Patxi Alustiza (Oñatibiaundi), Felix Oiarbide (Bidaurreta), Joxe Mari Igarzabal (Merkategi), Santiago Agirrebengoa (Otsategi), ezezaguna, Roke Oiarbide (Bidaurreta), Patxi Murua (Alkaintxiki, txapelik gabe dagoena), Manuel Murua (Alkaintxiki), Joxe Telleria (Madariagagoena), Antonio Arratibel (Zuazolagarakoa), Gillermo Gabilondo (Madariagabarrena) eta ezezaguna.

Hirugarren ilaran ezkerretik eskuinera: Tomas Azarola (Mandiola, akordeolaria), Antonio Arzelus (Kalebarren, akordeolaria), Martin Urkiola (Aunditegi), Tomas Uria (Araneaundi) eta Antonio Ariztimuño (Izarbarrena).

Behoko ilaran ezkerretik eskuinera: Anizeto Salsamendi (Astiazaran), Joxe Antonio Ormazabal (Agerre), Joxe Mari In-txausti (Igeribarrazpikoa), Pedro Ariztimuño (Igeribargarakoa), REXURREZION AROZENA (Igeribarrazpikoa), Eugenio Murua (Izarrandi) eta Lukas Uliando (Urkiztegi).